

TOKIKOM

2014ko abendua | 143. zenbakia



Txorierriko Elikagaien Bankuak Janaria, guztiontzat



25. urteurrena ospatzen hasteko

LUR

dantza eta musika ekitaldia

Urtarrilak 3, 19:00etan
Derioko frontoian



LUMND 25 1989-2013

LIVONEN DERIO

Derio



electricidad derio elektrizitatea
Koadro elektrikoak • Instalazioak • Mantentzea

Proiektuak eta material elektrikoaren salmenta

Aizkorri Kalea, 1 - Telf / Fax: 94 454 31 48 - **48160 DERIO** (Bizkaia)



ESTANKOA Ana Artiñano Inchausti



Mungialde etorbidea, 12 - 48160 **Derio**
Tel/Fax: 94 454 15 41
anaarti@euskalnet.net

Zorionak eta Urte Berri On



Liliak Loradenda

www.liliak.net
facebook: liliak loradenda
amalarementeria@euskalnet.net

Erdiko Kalea, 2 • DERIO
94 454 12 23

X Kotixa Plaza, 2 - 4. D
48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 944 54 27 19

Estudios 10 Ikastegia

Pakearen Plaza, 3 - behea
48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 944 54 50 19 **X**



Bisitatu gure bloga

www.blogari.net/tximintx



Txepetxa aek euskaltegia
txepetxa@euskalnet.net

Zorionak eta urte berri on eutsi euskaraz berba egiteko konpromisoari



Gorbea kalea, 5
48160 Derio
tel. 944 543 967



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea, eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Asier Oruetebarria, Jon Goikouria Larrabeiti, Asier Bilbao, Larrabetzuko liburutegia, Zorritzetan, Pedro Landeta, Ispizua, Atharratz Garcia, Bestorrene, Xabier Díaz, Derioko Plaza, Oihana Astobietta, Belen Gana eta Itsasne Zubiri

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon!

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



diruz lagundutako aldizkaria



10 Euskararen Eguna



12 Miren de Miguel



26 Genero indarkeria

- 4 Eritxia
- 5 Laburrak eta albisteak
- 10 Euskararen Eguna
- 12 Gurean izan da... Miren de Miguel, sopranoa
- 14 Txorierriko Futbol Selekzioa
- 16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
- 18 Txorierriko Elikagaien Bankuak
- 22 Gabonetako egitarauak
- 26 Genero indarkeria
- 28 Koikili Aterpetxea
- 32 Teknologia... Gauzen Internet
- 33 Aikorrizketan... Euskaldun diglosikoak
- 34 Sukaldaritza
- 37 Denborapasa

Peluteria
Esterika
94 455 81 44
Anguleti 2. beheko Larrabetzu-Bizkaia

FRUTAK BARAZKIAK
Produktu ekologikoak
Hainbat ogi eta pastel
Gaztelumendi, 3 - beheko 48195 Larrabetzu 94 455 89 19

BASALBEITIKO TXAKOLINA
Bizkaiko Txakolina
Denominazioa de ontxen
Goitortza euzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

Hesiaren beste aldean

Lehengo egunean beharrerantz nindoala kotxe ilara baten amaitu neban. Aurreko baten be holan gertatu jatan eta haren ondorioz artikulu bat idatzi neban. Oraingoan gauza bera egingo dot. Oraingoan ez jat Asua inguruan gertatu, Loititik Deriorako bidean baino. Bide tarte horretan, alboetan babes-hesiak ipinten ibili dira. Ez dakit Foru Aldundiko bide zaindaria bildur diran eskoatarantz joango garen, edo ezkerretarantz Deriotik Loiturantz etorri ezker. Eskoa edo ezker, nahiko erlatiboa da, ezta? Batzuen zat bardina, besteentzat guztiz desbardina; euren tartean erdia dagoala esaten dabe. Dana dala, gure agintariak bildur dira zehaztutako bidetik urtengo ete dogun. Bizitza osoan esan deuskue zein dan bide "egokia". Eskolatik hasita. Ezkerretan dagoan marjina gorde, eskoatako orri ertzera lar parajetu barik, koadernu milimetratuan letra borobil eta bardina egin. Azkenean koadrikulau bihurtu gara.

Umeek, koadernu baten tarteko orriren bat zuriz agertzen bajake eta ez idazteko koadrikulagaz, ez dakie zer egin, ez jake gustaten, engainauta sentitzen dira.

Bidetik urtetea gatxa da, baina noizean behin hesiaren beste aldean dagoana ikusi behar dogu. Ez dot esaten legea apurtu behar dogunik. Gehienetan geure barnean egoten da zentsurarik handiena. Horrek eta eguneroko betebeharrak itsutu egiten gaitue. Beharbada atzera urrats bat emon behar dogu, eta gure buruan dagoan hesi horren gainetik saltu egiteko indarra hartu.

Artikulu hau idazteko be karaktere kopuru mugatua daukat. Aikorrekoak be hesiak ipinten! Matxinatu egingo naz eta ez dot gehiago idatziko. Zuriz itxiko dot falta jatan zatia, bakotzak gura dauena idazteko edo gura dauenerako erabilteko. Ez jauna! Zelan egingo dot hori? Zelan egingo deutset hori Aikorreko? Orain dala pare bat aste eretxi artikulua idatzi-



ASIER ORUETXEBARRIA
(Irakaslea)

ko nebala berbea emon neutsen. Eta ez badot idazten, ganera, zer lortuko dot? Idatziko dot, gitxienez orrialderaren itxurea ondo egoteko.

Hain lerro gitxitan zein kontraesan handia, ezta? Bide bazterrean ipinten deuskuen babes-hesi horren gainetik saltu egiteko irakurlea animau hasieran, eta amaieran ni neu kikildu naz. Hesiaren beste aldekoak bertigoa emoten deust. Azken finean artalde hutsa gara. BEEEE-EE...

Abenduaren hasieran, eszena xelebre bat ikusi nuen Bilboko Unamuno plazan: gaztaina-saltzailea eta izozki-saltzailea zeuden pare-parean jo eta ke lanean. Uda hasi bezain pronto, alarma pizten zait urtero. Karteltxo baten bila hasten naiz taberna guztietako barren bestaldean: "Gabonetako loteria badago". Zer demontre gertatzen da? Uda hasi baino ez da egin, eta dagoeneko eskegi dute loteriaren inguruko kartela "Salda badago" karteltxoaren ondoan!

Gabonetako argiak azaroko lehen egunetan hasi ziren jartzen eta probatzen Sondikan. Oporretako eskandalu guztiarekin (ez baitago hitz egokiagorik), zabal-zabalik utzi dizkiogu ateak kontsu-

Gabonfobia



JON GOIKOURIA LARRABEITI
(Argazki-kazetaria)

mismoari, aurtan bi hilabeteko aurrerapenarekin, eta zenbat eta denbora gehiago igaro, orduan eta arinago hasiko ditugu prestakizunak. Gainera, globalizazioaren munstroa sartu zaigu etxera Estatu Batuetan eta Kanadan sortutako Ostiral Beltza dela eta: gehiago erosteko aitzakia bikaina.

Horrela jarraituz gero, urteak pasa ahala, udako oporretan hasiko gara Gabonetako oporrak prestatzen, Aste Santuan geroago, eta, batek daki, urte gutxi barru betiereko Gabonetan biziko al gara?

Altzari
EBANISTERIA - CARPINTERIA, S.L.
Zureko lanetan espezialistak
Alain Pomposo Zarate
946 740 141
663 209 209
www.altzari.com
altzari@altzari.com
Luisene, 2 - Belako Elkartegia, mod. 203-2 - 48100 MUNGIA

TURREGOITI
JATETXEA
Laurgoita etorbidea, 27
48180 Loiu-Bizkaia
T-Faxo: 94 453 24 40
restauranteturregoit.com

elekma
URRATZAREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRAK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TOSKAK
Izaherengo markak • Prezioak onak
BOSCH, SIEMENS, BALAY
Tasari etorbidea, 25-3 N • 48180 Loiu
T: 944 529 232
www.elekma.es



Lujua eta Estrada, txapeldunak Zamudion

a: Pedro Landeta

Azaroaren azken asteburuan, Zamudio Racing elkarteak. Horretarako, Bizkaiko Real Peña Motorista elkartearen laguntza eduki zuten. Oso eguraldi txarra egin zuen, eta, probaren gogortasuna dela-eta, parte-hartzaile batzuek lasterketa uzteko erabakia hartu zuten. Hala ere, ikusleak zein antolatzaileak pozik azaldu

ziren ikuskizunarekin. Proba Xabier Lujua pilotuak eta Jesus Estrada kopilotuak irabazi zuten. Proba Euskadiko Rallyen Txapelketarako izan zen puntuagarria.

“Eskerrak eman nahi dizkiegu proban parte hartu zuten talde guztiei, baita gu laguntzera etorri ziren lagun guztiei ere. Ezinbestekoak dira guretzat, eta espero dezagun etorkizunean ere beren laguntza edukitzea”, adierazi zuten antolatzaileek.

Xakearen ezaugarri hezitzaileak

Derio Xake Taldeak “Xakeak pentsatzen irakasten du eta oso dibertigarria da” lemapean hitzaldia antolatu du abenduaren 29rako. Hitzaldia arratsaldeko 6etan izango da Gurea Aretoan eta Leontxo Garciak emango du. Leontxo Garcia kazetaria, idazlea eta komentarista da, eta xakean aditua ere bada.

Besteak beste, xakea hezkuntza-erreminta bezala duen baliagarritasuna, batez ere umeen kasuan, azalduko da hitzaldian.

Horretarako, hala frogatzen duten eta azken 87 urteetan egin diren ikerketa zientifikoak erabiliko dira argudiotzat. Era berean, beste gai batzuen gainean arituko dira ekitaldian, hala nola xakeak Gardnerren adimenekin duen lotura, xakea eta adimen emozionala, eta xake hezitzailea eta kirol xakea bereizteko beharra. Hitzaldia xake-lariei ez ezik gurasoei eta hezitzaileei ere badago zuzenduta.

Artetsu saria jaso du Sondikak

Saria Arbaso Euskal Herriko artisautza tradizionala sustatzeko elkarteak eman dio Sondikako Udalarari “Erakundeak lagun” kategorian. Hala, erakundeak euskal artisautza zabaltzeko eta sustatzeko egiten duen lana aintzat hartu dute.

BOLALEKU
JATETXEA

10. URTEURRENA

- Hainbat menu
- Karta
- Ospakizunak
- BOLAPARK

Garaioitza, 1 - LEZAMA
94 455 41 10
Jorallu Facebooken

SARRIKOLA
OGITEGIA

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

INSTITUTE BELLORA
BARBARA

Ordutegia:
Astegunetan:
10:00-14:00 / 16:00-20:00
Larunbatean:
10:00-14:00
Beste batzuk:
eskatu hitzordua

Goiko kalea, 2
(sarrera Erdiko kaleetik)
Derio 48160

SUSTAPENAK
ETA
BEHERAPENAK

Marimar
94 454 13 64
670 022 794
marimarggg@yahoo.es

Egutegi solidarioak salgai

Gure Señeak Derioko elkarteak 2015. urterako kaleratu dituen egutegi solidarioak leku hauetan ipini dira salgai: prentsa-kioskoetan, estankoetan, Adarve, Txapas, Irrintzi eta Bestorrene tabernetan, Uribe okindegian, Arinka liburutegian, Eguzkieder haurtzaindegian, Ipuinak jostailu-dendan, Zaindiz hortz-klinikan eta Gurea Aretoan. Era berean, La Caixaren Txorierriko bulegoetan eta osasun-zentroetan ere eskuratu daitezke. Egutegi bakoitzak hiru euro balio du, eta biltzen den dirua gaixotasun arraroa duten umeen eta ezintasun berezia duten umeen bizi kalitatea hobetzeko erabiliko du elkarteak, baita beren familiei laguntzeko ere. Egutegian, azken urte bietan Txorierri jaio diren ehun bat umeren argazkiak batu dituzte. Aurkezpen ekitaldia abenduaren 3an, Ezinduen Nazioarteko Egunean, egin zuten eta bertan Kepa Junkerak eta Ane Pirata pailazoak hartu zuten parte.



Ekidazu abesbatzak 13 urte



a: Ispizua

Ekidazu Lezamako abesbatzak 13 urte bete ditu eta, urteurrena ospatzeko, kontzertu berezi bat eskaini zuen Santa Zezilia Egunaren bezperan. Emanaldia Andra Mari Lezamako elizan izan zen, eta Ekidazu abesbatzaren kideek ohiko erreperitorioa kantatu zuten jendaurrean: *Aleluia* eta *laute, iaute*, abesti batzuk aipatzearen. Lezamarrekin batera, Otxarkoagako Talde Korala eta Larrabetzu Ganbara Orkestra aritu ziren kantaldian.

“Urteurrenak borobilagoak izaten dira normalean. Guk hamahirugarrena aukeratu dugu, zenbaki berezia delako” esan zuen Fernando Olabarrietak. “Azken

batean, zenbakia baino ez da; geldiune txikia, joan dena errepasatzeko, oraina ospatzeko eta etorkizuna prestatzeko. Aitzakia bat, koruari eta musika koralaria bultzada bat emateko”. Oso ekitaldi berezia eta hunkigarria izan zen eta bertan abesbatzatik pasatu diren zuzendari gehienek ere hartu zuten parte.

Bestalde, Ekidazu abesbatzak Txorierriko Gabon-kanten jaialdiaren haritik antolatutako hiru kontzertutan kantatu du, eta abenduaren 27an, Sondikan eskainiko den kontzertuan ere egongo da. Kontzertua iluntzeko 7:45ean izango da San Juan elizan, eta Lezamako abesbatzarekin batera Txorierriko beste abesbatzak arituko dira.

Palestinako baserritarrei laguntzeko diru-bilketa, Larrabetzun

Urtero bezala, Larrabetzuko Produktuen Azoka egin zen urrian, eta plazara herriko 18 ekoizleren produktuak eraman ziren: ortuariak, txakolina, arrautzak, egurrezko lanak... Azoka Gurrpide elkarteak antolatuta zuen. Besteak beste, 2015-2017 urterako baserritarren gida aurkeztu zen eta elikadura burujabetzari buruzko bideo laburren emanaldia egin zen. Gainera, Gurrpide elkarteak bat egin zuen Mundu bat gobernu kan-

poko erakundeak Palestinako baserritarrei laguntzeko martxan ipini duen kanpainarekin, eta taloen salmentari esker batutako diruaren % 25, 200 euro hain zuen ere, kanpainara zuzendu da. Gobernu kanpoko erakundeak guztira 22.109 euro batzea lortu du. Dirua ureztapen sistemak berritzeko, haziak erosteko eta nekazari palestinarrek dituzten beharrianak betetzeko erabiliko da.

**Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.**

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

**Pentsu
naturalak**

Ormazabal aurrean kontzentratuta

Fernando Lopezek martxotik hona darama kontzentrazioak egiten, Ormazabal enpresak Zamudion duen egoitza aurrean. Iazko abenduan bera eta beste lau lankide bota zituzten Igorreko lantegitik. "Diziplinazko kaleratzea zela adierazi zidaten, eta argudiotzat nire ekoizpena jaitsi zela erabili zuten. Baina ez zen egia. Are gehiago, nahiz eta "diziplina kaleratzea" izan, enpresa prest azaldu zen bidegabeko kaleratze bati dagokion indemnitzazioa ordaintzeko". Gazteak ez zuen onartu eta epaitegira jo zuen. Esan digunaren arabera, adiskidetzeko ekitaldian enpresak oraindik ere diru gehiago eskaini zion, baina ez zuen onartu. "Epaiketa egin zen. Kaleratze baliogabea eskatu nahi nuen, baina akats bat egon zen demanda sartu zenean, eta epaileak bide-

gabeko kaleratzea izan zela esan zuen. Epaiauren aurkako errekursoa aurkeztu dut eta zain nago".

Fernandoren ustez, bera eta beste lau langile kaleratu izana enpresaren estrategia bat izan da, "gainontzeko langileek txintik ere atera gabe onarrezatzen ondoren etorri zen eta beharrezkoa ez zen ERE bat. Bestalde, ni langile deserosoa izan naiz, ez naizelako inoiz isildu bidegabekeriaren aurrean, eta modu honetan erditik atera naute".

AIKOR! aldizkaria enpresarekin ipini da harremanetan eta adierazi digute ez dutela gaiari buruzko adierazpenik egingo. Hala ere, argi utzi nahi izan dute epaileak agindutakoa zintzotasunez bete dutela eta hark ezarritako indemnitzazioaren gordailua egin dutela.

Piratak egun batez

Gurasolagun egitasmoaren arduradunek oso ekintza berezia antolatu dute urtarrilaren 7rako: Bilboko Itsasadarreko Itsas Museora bisita. Eta zergatik da ekintza berezia? Bada, umeei zuzenduta dagoelako. "Piratak, itsasoko lapurrak" erakusketak ibilbide bat eskaintzen du pirateriaren historian zehar. Era berean, pirata motak eta haiek erabili dituzten armak, txanponak, ontziko tresneria... hurbiltzen du publikoarengana. Gainera, umeak piratak izango dira egun batez, besteak beste, haientzako ginkana bat eta esku lanak antolatu direlako. Ekintzak 3,50 euro balio du eta telefono honetara deitu behar da izena emateko: 635 75 35 95.

Loiuko bilakaera, egutegi batean

Loiu Laztana elkarteak egutegia kaleratu du 2015erako. Guztira 1.250 ale egin ditu eta horiek Olentzero Egunean banatuko ditu Eletxolerrin goizean, eta Zabaloetxan arratsaldean. Egutegiak herriko dendetan eta tabernetan eta udaletxean ere egongo dira eskuragarri. Egutegietan Loiuk azken urteotan eduki duen bilakaera islatzen saiatu dira, eta horretarako antzinako eta gaur egungo argazkiak erabili dituzte. "Martxoari dagokion orrialdean, esate baterako, belarra lehen zelan biltzen zen, metetan, eta gaur zelan biltzen den, boletan, jaso dugu".



LAPIKO/s. L.
Enpresaren materialak - Bideratzea

LK

Bº, Garsiolza, 67 - 48196 LEZAMA (Bizkaia)
Tlf: 94 455 63 88 - 94 455 64 01 - Fax: 94 455 63 98

GOXO-GOXO LOHIZUN

Stratseldaz zabalik
Ogile egunero
Postelak ankerguz

Garsiolza, 77c
48196 Lezama
94 455 42 72
goxogoxolohizun@hotmail.com

LIBURUDENDA PAPERDENDA

ZAMUDIO

Gorbea kalea, 5
Telefono / Fax: 94 452 29 10 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

TXORIERRI
Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

karregandik gertu

ABOLKULABITZA - TASAZIOA
AKORATZEAK - ENKUALDATZEAK
SALERROSKEAK
SEGUROS BILBAGOREN AGENTZIA

yedra
floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

TXORIERRI MARMOLDEGIA

Sukalde eta bainugeletako harriak
Fatxadak • Atariak • Hilerriak

Torrelarragoi I Ind., 7 B P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

Perretxiko ederrena

Lagatu Zamudioko elkarateak eta Berbalagun egitasmoaren arduradunek argazki txapelketa bat antolatu zuten urrian. Txapelketak perretxikoak eduki ditu ardaztat eta irabazlea Jose Angel Mentxaka deriolarra izan da. Argazki ederra ateratu zuen perretxikotan zebilela, eta hari "Zahartzen ari gara" ipini dio izenburu.



Bertso afaria, Sondikan

Altzora Sondikako euskara elkarateak bertso afaria antolatu du urtarrilaren 16rako. Bertso afaria Gaztañaga tabernan izango da 21:00etan, eta bertan Etxahun Lekue eta Beñat Ugartetxea arituko dira bat-batean. Ekitaldiak 20 euro balio du eta izena urtarrilaren 13a baino lehen eman behar da: 635 75 35 95.

Igor Urrutikoetxearen oroimenezko ekitaldia



a: Haritz (LAB sindikatua)

Lagunek eta herritarrek omenaldia egin zioten Igor Urrutikoetxeari azaroaren 29an, Lezaman. Igor LAB sindikatuaren Nazioarte Saileko arduraduna izan zen, eta iaz istripuz hil zen Brasilen, hara kongresu batean parte hartzera joan zenean. Igor AIKOR! aldizkariaren kolaboratzailea ere bazen. Ekitaldian 100dik gora lagun

batu ziren. Parte-hartzaileek ibilaldi bat egin zuten Lezamatik eta Igorrentzat esanguratsuak ziren lekuak bisitatu zituzten. Leku bakoitzean berbak esan ziren Igorren omenez eta, txanda hartu ahala, hizlariak elkarri pasatu zioten zapi palestinar bat. "Zerbait dinamikoa egin nahi izan dugu, Igor ere horrelakoa zelako. Uste dugu zerbait polita eta hunkigarria egin dugula", esan digute antolatzaileek.

Izpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3. lonja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - izpilen@gmail.com

LIBRERIA SONDIKA LIBURUDENDA

ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papegintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Txorierri

Rocio Astorkia Bordegaray
Kepa Herguedas Manso
Maria Conde Bilbao
Ainhoa Rodriguez Mella

Mitxino 6. behe - 48150 - Sondika (geltokiaren aurrean)
T.: 944 711 630 - Lantokiak: 670 985 885 - www.txorierri.com

Consulting Sondika s.l.

Sabin Askolizaga

Aseguru agentzia
Allianz

609 475 746

Mitxino, 6. behe
48150 Sondika-Bizkaia

T.: 94 453 16 07
Faxa: 94 453 60 27

IRATXO
gozotegia

larta personalizatua
trufak
lelak
pastelak
pastelak

Mikel Zarate, 2 - 3. lonja - Sondika, 48150 - 94 545 89 10

Ibilaldiari Oxangoiti kultur elkartearen egoitzan eman zioten hasiera, Igor horren sortzaileetako bat izan zelako. Lagunek bere argazki bat ipini zuten tabernan. Taldea eskolara abiatu zen gero, eta han Askapena erakunde internazionalistak idatzitako gutuna irakurri zuten. Igor talde horren kidea ere bazen. Hurrengo geldialdia eliza ondoko parkean egin zuten. Leku horretan Iñaki Rikeri egiten diote omenaldia urtero, eta Igor eta Iñaki lagunak zirenez, biak omenaldian batzea erabaki zuten antolatzaileek. Rike iheslari politikoa izan zen, eta Baionan hil zen 2006. urtean. Parkean, zuhaitz baten alboan, Kataluniako lagunak idatzitako testu bat irakurri zuten.

Ostean, Aretxalde auzora joan ziren. Esan digutenaren arabera, Igor kezkatuta zebilen industrializazioak auzoan duen eraginarekin, eta LAB sindikatuaren lagunak hitzaldi txiki bat eskaini zuten horren haritik. Azken geldialdia Igorren gurasoen etxean egin zuten. *Xalbadorren heriotza* eta *Loretzxo*a abestiak kantatu zituzten han eta Igorren argazkiak oparitu zizkieten gurasoei, baita ibilbide osoan eskuz esku pasatu zen zapi palestinarra ere. Jakinarazi duten bezala, antolatzaileek badute hurrengo urtean ere Igorri omenaldia egiteko asmoa.

Txorierrri, gizon proben txapelketan

Azaroan, Gizon Proben Euskadiko eta Bizkaiko txapelketak egin ziren Nabarnizen. Txapelketetan Txorierrri Herri Kirol taldearen hiru kidek hartu zuten parte. Aurreko urte bietan irabazleak izan bazen ere, Iñigo Aurrekoetxea derioztarrak, 85 kilo baino gutxiagoko kategorian, bigarren postuarekin konformatu behar izan du aurten, bai Euskadiko txapelketan, bai Bizkaikoan

ere. Pisu libreko kategoriari dagokionez, laugarrena izan da Bizkaiko Txapelketan, eta bosgarrena, Euskadikoan. Erandio-goikoko Gorka de la Concepcionez, pisu honetan, bigarren postua eskuratu zuen Euskadiko zein Bizkaiko txapelketan eta Aitor de la Concepcion loiuztarrak bosgarren eta seigarren postuak, Bizkaiko eta Euskadiko txapelketetan hurrenez hurren.



a: Atharratz Garcia

AUTO KLASIKOAK, LARRABETZUN.—Ekitaldiak Larrabetzu Motor Racing elkartek antolatu zuen abenduaren 13an. Herrian 40 auto inguru batu ziren, aurreko edizioetan baino gutxiago. Izan ere, kontzentrazioa domekan egin dute aurreko urteetan, baina aurten zapatara aldatu behar izan dute, eta horrek eragina eduki du. Nolanahi ere, Larrabetzuko kontzentrazioa erreferente bat da eta bertan oso giro ederra egon zen.


auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, behea B
48150 SONDIKA

634 410 470
auzokidefincas@gmail.com

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurrazaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

 **Goiri'78 s.l.**
Zerbitzu ofiziala



Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

GALAISIA *Elengabeko ordutegia*

Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51



Sabino Arana 1-3. SONDIKA



t: Bestorrene / a: Derioko Plaza

Abenduaren 3an izan zen Euskararen Nazioarteko Eguna, baina Euskararen Eguna gaur ere bada, eta bihar, eta etzi. Izan ere, euskarak gutxienez 365 egun ditu urtean. Eta hori gogorarazi nahi izan zuten Tximintx euskara elkarteak.

Ekitaldi xume baina hunkigarria egin zuten abenduaren 3an, Kultur Birikan. Kibila osatu zuten bertaratutakoek, espirala. Erdigunetik hasi eta biribilka kanporantz irekiz. Erdikoak kandela piztu eta ondokoari transmititu zion sua, eta horrela amaieraraino. Denen artean euskararen garra piztuz Derion, kandelaz kandela.

Zentzu berezia du espirala osatzeak. Derion euskaldunak barrutik kanpora trinkotzen ari direla irudikatu nahi izan zuten, barrutik kanpora euskaldunen komunitatea osatzen ari direla, hain zuzen ere. Erdigune trinkoa eta kanpora zabalik dagoena.

Ehundik gora pertsona batu ziren ekimenean, haur, gazte eta heldu. Baina haien artean batzuk nabarmendu nahi izan zituzten Tximintxekoek. Derion euskaltasuna bizitzeko modu asko daudela erakutsi nahi izan ziguten. Eta, horregatik, zazpi derioztar gonbidatu zituzten. Euskara transmititu dutenak, euskaraz bizi direnak, euskara ikasten ari direnak eta euskara egingo dutenak: Jose Mari

Kandelek piztu dute euskararen garra Derion



Berreteaga, Eustaki Orroño, Zigor Media-villa, Nagore Robles, Natalia Duran, Haizea Malaina eta Hodei Jimenez.

Sua piztu ostean, Urko Aristik Euskararen Egunerako idatzitako manifestua irakurri zuten Tximintxeko kideek, eta txalo handi batekin amaitu zen ekitaldia. Ondoren, *photocall*-a paratu zen Birikan,

eta taldeek zein norbanakoek hainbat argazki egin zituzten Euskarak 365 egun leloa zuten kartelak eskuetan zituztela.

Bideoa ere grabatu zuten Tximintxekoek. Oraindik ez dute plazaratu, baina denbora gutxi barru zabalduko dute, egunean bertan grabatutakoak denoi eskaini guran.

MARMOLGINTZA GOYO
SUKALDE-GAINEKOAK OBRAK HILERRIAK
Ugaldeguren 1 ind. 18-B nabea
48160 Derio, Bizkaia
T: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

ELORRIETA INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Urbe kalea, 12 behe Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

BIZKARGI
TABERNA ETA JANARIA
Urkiola, 6 DERIO
944541655

Iruditan

Ibilbideak, bazkariak, filmak, bertsolariak, antzerkia, musika ikuskizunak, hitzaldiak... ekitaldi sorta ederra eduki dugu aurten Loiuñ zein Txorierriko gainontzeko herrietan Euskararen Egunaren haritik.



a: Zorritzetan



a: Larrabetzuko liburutegia



a: Asier Bilbao



Alaia
fruta-denda
Etkez etxeko zerbitzua
Bertoko produktuak
Tel.: 5
48170 Zamudio
94 455 05 85

HARATEGIA
ALBERTO
Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

KIMA
Landarak
LANDARE APAINGARRIA
Gutiola 59 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAIA)

MAS MENOS
Janari-denda
Prezio paregabeak
Bestorrena, 3 DERIO
670 60 70 41

harategia - urdalategia
MIGUEL
ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZIA
Mikel Deuna, 7 • DERIO 48160 • T: 454 52 94

Nire Autocasion
IMPORTAZIOA ETA SALMENTA
GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobiak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

“Ezin ikusizkoak diren emakumeei ahotsa ipintzeko beharra daukat”

MIREN DE MIGUEL | sopranoa

Miren de Miguel soprano eta aktoreak *Tutte Contro Verdi* opera-ikuskizuna aurkeztu zigun joan den hilean, Derion. Antzerki- eta musika-lan bat da, kabaret-ukitua duena. Parmako egilearen lanetan emakumeek duten papera kritikatzeko da bertan.

Zein da *Tutte Contro Verdi* lanaren arrazoia?

Grina handia dut operarako, baina, aldi berean, opera-libretoetan badago izugarri gogaitzen nauen joera bat, emakume protagonistei dagokiena eta eten-gabe errepikatzen dena: emakumeak etengabe hiltzen dituzte, gaizki tratatzen dituzte, edota hiltzera behartzen dituzte beren senarrari, aitari, aberriari... dioten maitasunagatik. Dikotomia hori islatu nahi nuen proiektuan, nire barruan dagoen gatazka hori, soprano izatearen eta emakume izatearen artekoa, eszenara eraman.

Ellas trilogiaren zati bat da.

Nire antzerki- eta musika-proiektuen egilea edo egilekidea naizen aldetik, nolabaiteko beharra sentitzen dut kulturari ekarpen handia egin arren ezin ikusizkoak diren emakumeei ahotsa ipintzeko; agerian jarri nahi ditut beste arrazoi-
ren bategatik ospetsu egin diren emakumeak, gizonak sortutakoak diren emakume-pertsonaiak, maitasun erromantikoan murgilduta dauden eta handik ihes egiteko zailtasunak dituzten emakumeak... Hain zuzen ere, horregatik hautatu nuen Linda Lee Porter *So in love* kabaret-lanarako. Cole Porter musikagilearen emazte leiala izan zen, Cole homosexuala izan arren, eta nolabait haren karreraren gidaria ere izan zen. Beste alde batetik, *Tutte Contro Verdi* Giuseppina Strepponi sopranoarengan dago inspiratua. Hura Verdiren bigarren emaztea eta kolaboratzaile leialena izan zen.

Trilogiaren hirugarren lana, *Quédate mis tetas y devuélveme mi dignidad*, 2015-2016 denboraldirako estreinatuko da.

Emma du protagonista, bere zazpi bekatu nagusiei, bere zazpi gizona, aurre egin behar dien emakume bat. Gizon horiek eurengan islatu den estereotipoaren arabera lagundu dute Emma sortzen. Aita gularen sinboloa da; senarra, inbidia-rena; neba, alferkeriarena... Eta amarengan batzen dira bekatu guztiak. Euskarri emozionala da ama, eta, elkarri ulertzeko arazoak badituzte ere, bene-benetan maite dute elkar. Emma krisian sartzen da, eta bere buruhauste emozionala apurtzea erabakitzen du. Eusko Jaur-laritzak beka bat eman zidan iaz, gidoia eta muntatzea garatzeko, eta buru-belarri nabil horretan.

Feminismoak pisu handia du zure lanean.

Ezin dut neure alderdi soziala neure sorkuntza artistikotik bereizi. Emakumeok oraindik ere pairatzen ditugun berdintasun faltari eta indarkeriari irtenbidea topatzeko beharra daukat. Arke-



tipoek funtzionatzen dute operan eta antzerkian, baina artistok ezin ditugu begiak itxi gizarteak helarazten duen emakumearen prototipoaren aurrean, edo beste albo batera begiratu geure arazoa izango ez balitz bezala. Hor konpon bakoitza bere kontzientziarekin!

Zelako euskarria da artea aldarrikapen feministarako?

Egoerak modu subjektiboago batean agerian jartzeko aukera ematen digu. Era berean, hausnarketara bultzatzen ditu ikusleak, eta inputak ematen dizkigu, beste gizon eta emakume batzuek arazoa azter dezaten edo aurrera jarrai dezaten arazo horri buruzko lanak egiten. Arazoa zenbat eta gehiago erakutsi, orduan eta normalizatuago egongo da eta gero eta tabu txikiagoa izango da.

“Artistok ezin ditugu begiak itxi gizarteak helarazten duen emakumearen prototipoaren aurrean”

“Opera Athletic bezalakoa da: zalea zara, edo ez zara; asetzen zaitu, edo ez zaitu asetzen”



Operatik ihes egin

Miren de Miguel, operako abeslaria ez ezik, aktorea, sortzaile feminista... ere bada. Operari dagokionez, Madrilén egin zituen lehenengo urratsak, eta arte dramatikoak ere bertan ikasi zuen, Corazzaren eskolan. Madriletik Verdiren hirira joan zen, Parmara, eta aholku baliotsuak jaso zituen han abeslari handien ahotik. Antzerki garaikidea ikasten ere jarraitu zuen. "Ia hamar urte eman nituen neure bokazioari bakarrik eskaintzen denbora. Baina neure ideia teatralak sortzeko beharra sentitzen hasi nintzen, eta kabaretari ekin nion. Operaren diziplina gogorretik ihes egiteko, beharbada". Bilbora itzuli zen, "haurdun nengoela, lehenengo alaba jaioitzeko baitzegoen orduan, eta ilusio eta ezagutza artistiko handiagoekin". 2009. urtetik hona ZAWP egitasmo artistiko eta sozialean hartzen du parte, Zorrotzaurren, eta han garatzen ditu bere ideiak eta egitasmoak.

Gutxiengoan ikuskizuna omen da opera; Bilbon, hala ere, oso handia da ABAOren abonamendua eskuratzeko eskaria. Zergatik gertatzen da paradoxa hori?

Athletic bezalakoa da opera, nire us-tez: zalea zara edo ez zara; asetzen zaitu edo ez zaitu asetzen. Antza denez, elite batentzat da opera, adin handiko publi-

koarentzat. Baina musika transformatzen duen alkimia da. Musikagile handien musika zoragarriak, ahots pribilegiatuek eta gero eta garaikideagoak diren eszenaratzeez opera ikusteko aukera ez galtzera bultzatzen dituzte poltsikoan 50 edo 60 euro daukaten lagunak.

Zaila da operako abeslari moduan trebatzea?

Oso. Kontserbatorioan ikasi dut, eta ikastaroak egin ditut hainbat herrialde eta eskolatan. Gose-aldiak igaro ditut, eta zailtasun askori egin behar izan diet aurre, baina banuen helburu argi bat: neure ahotsa menderatzen ikastea. Eta horretan jarraitzen dut; izan ere, ahotsa aldatzen da urteak bete ahala, eta erreperitorio ezberdin batera egokitzen joaten gara.

HORTZ KLINIKA

Idoia Zubietza

Osu-sun-zentroa & Horta-estesia
HORTZ-PLANTEAK - ORITU-ORTZAESTEIA
HARTZARAZIEN ZENTROA

Dr. Amara kalea, 11 - 1. eak. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22
Urte plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, beheak
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

Familia-atsedenaldia

Errehabilitazioa egiteko denboraldiko egonaldiak

Asteburuetan:
La. (11:00) / Ig. (19:30)

Gauetan:
19:30-11:00

Asteazkenean:
7 egun / 6 gau

Hamabostaldietan:
15 egun / 14 gau

TRUIUONDO ZAMUDIO
ZENTRO GERIATRIKOA

Torrelarragoiti ind. P-6
48170 Zamudio

94 657 55 00
www.naguspea.es



t: Gaizka Eguzkitza

"Txorierriko Selekzinoa orain dala lau urte jokatu eban lehenengo partidea, baina ganora barik: esate baterako, ez eben ezta kamiseta ofizialik be. Horixe izan zan lehenengo ahalegina. Garai hatan, Zamudioko koordinatzaileak selekzinoa sortzeko proposamena egin eban, eta batez be entrenatzaileen arteko kontua izan zan. Oraingo honetan, oster, klubon presidenteok eta zuzendartza-batzarkideok hartu dogu ardurea, batu egin gara eta formea emon deusagu Txorierriko Selekzinoari", azaldu deusku Juan Alaiogoikoa, Alai, Uritarra Larra-betzuko taldeko presidenteak.

Ekainean izan zan selekzino barriaren lehenengo partidea, Uritarra taldeak urtero ikasturte amaieran egiten dauen txapelketan. Bertan jokalariek janzkera propioa erabili eben: kamiseta arrosea eta prakak eta galtzak, baltzak. Selekzinoa indarbarritzeko eta martxan jarteko ekimena Larrabetzutik, Uritarra talde-tik, sortu zan, baina Txorierriko gainontzeko taldeek poz-pozik hartu eben gonbitea. "Nik zortzi urte daroadaz Uritarra taldeko zuzendaritza-batzordean, eta denpora-tarte horretan ez naz Txorierriko gainontzeko taldeakaz inoiz be batu. Proiektu honek guztiok alkarregaz egoteko aukerea emon deusku: Zamudio, Loiu, Derio, Sondika eta Uritarra, danok batera. Hori oso handia da eta indar-

Geure taldea

TXORIERRIKO FUTBOL SELEKZINOIA

Bailarako futbola apur bat sakabanatuta egon da azken urteotan. Hori ekiditeko, klubak batu egin dira eta Txorierriko Selekzinoa sortu dabe. Horrek klubon arteko hartu-emonak indartuko dauz eta nortasuna emongo deutso gure futbolari. Geure kolorea, arrosea; geure taldea, Txorierriko Selekzinoa.

TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrelarragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

LEANDRO LANDETA

HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz. Kulea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

ASADOR FUENTES BERRIA
"Ur eta itsasoko baserria"

Gosariak
Afariak
Enpresa-bazkariak
Ekitaldiak
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:
Okela eta arraina
txingarretan erreta

LEKUNBIZ-AUZOA 26
ZAMUDIO (BIZKAIA)
94 452 23 79
www.asadorfuentesberria.com

“Selekzinoak alkarregaz egoteko aukerea emon deusku Txorierriko klub guztioi”

tu egiten dauz harremanak. Oso onuragarria da guztiontzat. Lezama taldeak ez dau beheko mailarik eta, beraz, ezin izan dau proiektuan parte hartu. Dana dala, ateak zabalik daukaz etorkizunari begira”.

Txorierriko Selekzinoaren sustatzaileek ez dabe babeslerik topau, baina bardin deutse. Eurek klubek daben garrantzia azpimarratu gura dabe, eta horregaitik ikastolen eta eskolen taldeak proiektutik kanpo itxi dabez. “Txorierriko taldeak umilak dira eta askotan Bizkaiko klub handiak gure jokalarien bila datoz, eta gu ez gara ezta enteretan be: hori errespetu falta itzela da. Selekzinoaren asmoa ez da lehian sartzea edo partidak irabaztea, klubak batu eta gure harremanak lantzea baino, eta nortasun apur bat emon Txorierriko futbolari, beste barik”.

Txorierriko taldeetako jokalariaik

Selekzinoan, bakarrik Txorierriko taldeetan aritzen diran jokalariek jokatu ahal izango dabe, nahiz eta Txorierri jaioak ez izan. Hau da, bailarako taldeetatik kanpo jokatzen daben Txorierriko gazteek ezin izango dabe Selekzinoan jokatu. “Selekzinoa saria da jokalarien-

“Asmoa ez da partidak irabaztea, Txorierriko futbolari nortasuna emotea baino”

tzat. Gugaz aritzen diran futbolariak izugarriko konpromisoa adierazoten deus-kue, eta hareei esker, neurri baten, taldeak osatzeko aukerea dago Txorierriin, batzuetan jokalariaik topetako arazoak doguzalako. Maila altuagoa daben txorierritar batzuk kanpoko klub handietan jolasten dabe (Danok bat, Arenas...), eta hareentzat horixe da saria, maila altuago baten jardutea, hain zuzen be”.

Selekzinoa kadete mailan sortu da, baina gazte, haur eta kimu mailetan be



Selekzinoan bakarrik Txorierriko taldeetan aritzen diran jokalariek jolastu ahal izango dabe

sortu ahal dabe, aurkarien arabera. “Selekzinoa osatzeko, guk ez dogu jokalariaik topetako arazorik. Halanda be, oso gatxa da aurkariak aurkitzea. Esate baterako, Gabonetarako, abenduaren 27rako, txapelketea antolatu guran ibili gara, baina ez dogu areriorik topau eta azkenean bertan behera itxi behar izan dogu. Zallakoakaz, Arratiakoakaz, Lea-Artibaikoakaz... hainbat lagunagaz egin dogu berba, baina alperrik. Basauriko eta Bizkaiko Selekzinoakaz be harremanetan egon gara, baina eurek badabez partidak egun horretarako eta ezin dabe gure kontra jolastu”.

Halanda be, txorierritarrek ez dabe itxaropena galdu gura. “Guk hazia jarri dogu eta espero dogu beste eskualdeek be gure adibideari jarraitzea. Baiko-rra naz. Guztiei gustau jake ideia, baina ez dabe astirik euki, eta oraindik ez deustsie proiektuari behar bezala ekin. Beste eskualdeetan taldeak sortuko balira, arerioak topetea errazagoa izango litxake, eta ondorioz, partidien egutegi finkoa jarri geinke”. Bandera eta bufanda arrosak prest eukiko doguz, badaezpada.



Gorka Aginagalde

bakarrizketa

Urtarrilak, 3
23:45ean

ZORIONAK ETA URTE BERRIONI!

Errementeri, 8
48150 SONDIKA
944 532 592
652 732 584





LARRABETZU

☎ 94455 81 97

LOROÑO BEHEKOA
(BIZKAIA)



Osasunki: kirola eta osasuna jokoan

IKASTAROAREN EDUKIAK

OSASUNA:

- Osasunak kirol jardueran duen zeregina.** Kirol jardueraren onurak.
- Adingabeen garapena fisikoa.** Kirola sasoi bakoitzera egokitzea.
- Kirol higieena.** Banakako ohitura higienikoak (gorputzaren higieena, jarrerak...) eta taldekoak (baldintzak, jarduera fisikoa egin baino lehen eta egin ondoren).
- Prestatzailea.** Kirol mediku bat.

PSIKOLOGIA ETA BALOREAK:

- Motibatzeak eta sendotzeak duten garrantzia.**
- Balore positiboak helaraztea:** tolerantzia, laguntasuna, arauak errespetatzea, lankidetzak, diziplina, sakrifizioa, ahalegina, berdintasuna, erantzukizuna eta konfiantza.
- Adingabeen garapen psikologikoa.**
- Prestatzailea.** Kirol psikologo bat.

ELIKADURA:

- Elikadura-ohitura osasungarriak.** Haurtzaroa eta nerabezaroa: nutrizio-ezaugarriak eta gomendioak.
- Nutrizio-arazo ohikoenak.** Elikadura-desorekak (bigorexia, anorexia...), obesitatea eta gehiegizko pisua.
- Prestatzailea.** Nutrizionista bat.

DROGAK SAIHESTEA:

- Kontsumo-arriskuak.** Tabakoa, alkohola eta kanabisa.
- Arriskuak eta kalteak murriztea.**
- Taldearen presioa.** Gizarte-abileziak.
- Babes-faktoreak** kontsumoaren aurrean.

KONTSUMO-GIZARTEARI AURRE EGITEA:

- Erabilera segurua eta arduratsua.** Produktuak (arropa, oinetakoa...), zerbitzuak, instalazioak eta segurtasun-elementuak. Eskubideak eta betebeharrak.
- Markak eta kirola.** Marken eragina kirol produktuak erosteko orduan.
- Kirol produktuak arduraz erostea.** Ehunak, kalitatea, benetako beharrianak, ingurumen-inpaktua, etiketatzea...

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak, Esku-hartze Komunitario sailaren eskutik, proiektu berri bat sustatu du: Osasunki. Egitasmoa datorren urtearen hasieran ipiniko da martxan.

Osasunki proiektuak futbol entrenatzaileak eta monitorea osasun-agente bihurtzea du helburu, eta horretarako, 10 orduko ikastaro bat egiteko aukera eskaintzen da. Ikastaroa doakoa da eta Egaz Txorierriko lan-poltsan dau-denek ere egin ahalko dute. Proiektua beste kirol mota batzuetara zabalduko da hurrengo urteetan.



IZENA EMATEA

Epea: Urtarrilaren 12ra arte.

Telefonoa: 94 454 03 50

Helbidea: ekt@txorierrri.eu

IKASTAROA:

19:00-21:00

EGAZ Txorierrin

Erderaz:

Urtarrilak 14, 21, 28

Otsailak 4, 11

Euskaraz:

Urtarrilak 13, 20, 27

Otsailak 3, 10



LOKALEAN

Txorierriko Mankomunitatea, Gazteria saila eta Esku-hartze Komunitarioko sailaren bidez, 2012az geroztik ari da lanean Sondikako, Derioko eta Zamudioko udalekin, gazteen aisialdirako lokalen erabilera arautzeko. Mankomunitatearen helburua ez zen soilik lokalen segurtasunean oinarritzen diren araudi hauek bideratzea, baizik eta, bertan dauden gazteekin batera lan egitea. Arrazoi honegatik, 2012. urtean, lonjetan zein kalean batzen diren gazteekin prebentzioa eta partaidetza lantzeko helburua jarri genuen.

2015. urterako, Mankomunitateak *Lo-kalean* izeneko asmo handiko proiektua lokaletako eta kaleko lanean oinarritzen da; zehazki, droga, sexualitate, indarkeria matxista eta gazteen parte-hartze arloetan, bai eta arrisku-jarreretan ere, haraneko udalerrir guztietan. Esku-hartze horien xedea da Txorierriko gazteei kalteak murrizteko informazioa eta mekanismoak



ematea, eta euren parte-hartzea sustatzea udalerriko jardueretan.

Gaur egun, sare sozialek gazteen artean duten eragina kontuan hartuta, tresna hori erabiliko da bai gazteei mezuak bidaltzeko, bai Txorierriko Mankomunitateak arlo hauetan burutzen dituen kanpainak zabaltzeko: drogen kontsumoaren prebentzioa, alkoholemiak jaietan, erretzeari uztea, sexu bidezko gaixotasunak, HIESaren eguna, genero indarkeriaren

kontrako eguna, gazteen parte-hartzea, eta abar.

Horretarako, beharrezkoak izango dira bi hezitzaile, bata emakumezkoa eta bestea gizonezkoa. Biak, gazteekin lanean esperientzia izango dute. Bi bitartekari horiek izango dira gazteekin esku-hartzeak gauzatuko dituztenak. Proiektuak sei hilabete iraungo du (urtarriletik ekainera), eta asteburuetan burutuko da, ostiral eta larunbat arratsaldetan.

GaztE! Txorierri, webgune berria

Txorierriko gazteek sare-sozialak eta Internet erabiltzen dituzte. Horregatik, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko eta Erandioko Gazteria Zerbitzuek **GaztE! Txorierri** ipini dute martxan. Hori informazio-atari berri bat da, gazteei dago zuzenduta eta sare-sozialak batzen ditu.

Atarian berriak, bideoak, ekitaldiak, ikastaroak, eta lan eta prestatuntza eskaintzak kontsulta daitezke, baita erabilgarria den edozein informazioa ere. Era berean, Gazteria Zerbitzuak eskaintzen dituen zerbitzuak eta haren kontaktua ipini dira eskuragarri bertan. Bisita gaitzazun www.gaztebizz.com/gaztetxorierri webgunean!



2015eko PROPOSAMENAK

ERRETZEARI
BA
UTZI AHAL
DIOZU

ERRETZEARI UZTEKO TALDEA.

OSAKIDETZAko sendagile eta erizan eta Oscar Landeta **PSIKOLOGO** adituaren eskutik.

TOKIA: DERIOKO KULTUR BIRIKA

DATAK: Astelehenero, 19:00etan, otsailaren 2tik martxoaren 23 ra arte.

IZENA EMATEAK: Txorierriko Mankomunitatean (94-454.03.50 / ekt@txorierri.eu) edo edozein udaletxetan urtarilaren 12tik 30era.



Gosea sendatu ahal da

TXORIERRIKO ELIKAGAIEN BANKUAK

Gosea sendatu ahal da. Hauxe da Bizkaiko Elikagaien Bankuaren leloa, Gabonei begira egin zuen elikagaiak batzeko kanpaina. Azken urte biotan Elikagaien Bankuak sortu dira Txorierriko herri guztietan. Horiei esker, hainbat familiak badute egunero jateko aukera. Bankuen ardura-dunekin hitz egin dugu eta zerbitzuaren nondik norakoak eman dizkigute.



Club Hípico Aretxalde

Pony club - Zaldiketa ikastaroak
Aisialdirako landak - Apopilo zerbitzua
Salto - Txangoak - Animalaren heziketa

Telefona:
IBON - 659 90 75 88
Aretxalde auzoa, 89 • 48196 LEZAMA



LEJARRENE JÄTETXEÄ
Garaioltza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46



48196 LEZAMA Bizkaia Certifikatu auzoa, 26

S.A.T. LEGU
BERRITZAILARITZA ETA BERRI-LENDENAK



Tf: 94 455 64 57 Tf: 94 455 61 98

t: Gaizka Eguzkitza / a: B.E.B

Ainhoa Olaetak eta haren kuadrilla-koek kudeatzen dute zerbitzua Loiu. "lazko abenduan, poteoan genbiltzala, behartsuenei buruz hasi ginen berbetan. Laugarren garagardorako desagerrazita geneukan gosea mundutik (kar, kar). Eta Danontzat elkartea sortzea erabaki genuen orduan". Martxoan hasi ziren elikagaiak banatzen, Larrondoko frontoian, eta horri esker eramaten dituzte bederatziz famiak jakiak etxera. Loiu elkartek hori aktiboenetarikoa bat da Txorierrin. "Janaria ez ezik beste hainbat gauza ere behar dira etxetan: xaboia, komuneko papera, haur-oihalak, hortzetako pasta... Kutzak uzten ditugu Loiu eta Erandio-koikoko dendetan, halako produktuak batzeko, eta jendeak bete egiten ditu".

Ez dute hori bakarrik egiten. "Irailean, eskola-materiala banatu genuen, eta barazkiak eta fruta freskoa ere batzen ditugu batzuetan. Mungiako baserriar batek, Iñaki Melgosak, sobera duena ekartzen digu, eta berdin herriko beste nekazari batzuek. Loiu jaietan, saiheski-jana antolatu zen, eta jan ez zirenak ere geuk banatu genituen. Gabonetan, loteria ateratu digu beste elkarte batekin, eta Olenzero Egunean umerik behartsuenei opari bana emateko asmoa daukagu".

Derion ere sortu behar izan zuten elkarte bat bankua kudeatzeko: Derioko Elikagai Elkarte Solidarioa (DEES). 2014ko urtarilean jarri zuten zerbitzu hori abian, eta, guztira, 130 pertsonari ematen diete



laguntza. "la 6.000 biztanle ditu Deriok, eta badago beharizana. Bankuak 40 famiari baino gehiagori ematen die zerbitzua. Asko da hori", dio Jose Ramon Elorriaga DEES elkartearen presidenteari.

Derioren helduen diren jakiak ez dira nahikoa eskariari erantzuteko; eskaintza osatzen saiatzen dira, beraz, Derioko lagunak. "Esnetik kooperatibak produktuak bidali dizkigu. Aurreko Gabonetan, saski bat zozketatu zuen Ipar-Alde abesbatzak, baina, irabazlerik izan ezenez, saskiko produktuak eman zizkigun. Oso solidarioa da jendea, eta hori pozgarria da guretzat. Esate baterako, Bizkaiko Elikagai Bankutik lau kilo jasotzen bada pertsona-

ko, aipatutakoen moduko dohaintzei esker, lau kilo eta erdi edo bost kilo eman ahal diegu..."

Sondikan, hiru elkarte

Sondikan, hiru taldek kudeatzen dute elikagai-bankua: Goraintzaileak dantza taldea, Caritas eta Andre Mariaren Misiolari Frantziskotarrak. "Ekainean hasi ginen jakiak banatzen elizaren alboan dagoen lekalean", esan digu Izaskun Llona arduradunak. Sondikan ere ez da nahikoa jasotzen, eta herriko bankuak kanpaina batzuk eramaten ditu aurrera bere alde-rik. "Gurdi bat ipini digu Eroski supermerkatuan, jendeak bete dezan. Uztail-ean, futbol partida bat antolatu genuen

Hemen prestakuntzak
lana dakar berarekin

POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Lantze Heziketa eta Enpresen Inbaurkuntza Ikastetxea

Uztzagale Iruia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierra.net
48160 - DERIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierra.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO BATXILERGOAK
LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazio teknika
- Endi mailako zikloa (2 ordu)
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi-mailako teknika
- Goi-mailako zikloa (2 ordu)
- Produktzioaren Programazioko goi-mailako teknika
- Goi-mailako zikloa (2 ordu)

SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

- Ingurumen-Heziketa eta Kontrolko goi-mailako teknika
- Goi-mailako zikloa (2 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi-mailako teknika
- Goi-mailako zikloa (2 ordu)
- Telekomunikazio- eta Informatika-Sistemetako goi-mailako teknika
- Goi-mailako zikloa (2 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Salmenten kudeaketako eta Merkataritza Arloetako goi-mailako teknika
- Goi-mailako zikloa (2 ordu)

[illegible]

ERREKA
JAT  **ONDO**
ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29



ama
taberna 3

Leizaola plaza, 7 - beheia (ZAMUDIO)
94 655 93 69

**Garmendia
ardoak**

Pinoa pol. P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49

“Erabiltzaile gehienei lotsa ematen die elikagaiak eskatu behar izateak, baina...”

jakiak. Erabiltzaile batzuek iruzur egin digutelako kexatzen da jendea batzuetan, baina guk ezin dugu pertsona guztien egoera aztertu, ez delako hori geure lana. Ez dugu inoren janariarekin jolastu nahi”, dio Ainhoak.

Elikagai-bankuen erabiltzaileak etorrikin dira normalean, baina hemengoak ere badira. Besteak beste, lekaleak (dilistak, indabak, e.a.), arroza, pasta, latak eta gailetak sartzen dira erabiltzaileek etxera eramaten dituzten saskietan. Herriko arduradunek, hala ere, beste elikagai batzuen falta somatzen dute. “Esnea eta olioak gutxi jasotzen dugu, Cola-cao eta haurrentzako pure gisako janaria eta ahia ere gutxi”. Enpresa, hornitzaile eta super-

merkatu handien stocken arabera, beste jaki mota batzuk ere jasotzen dituzte. “Azken bolada honetan, maionesa pilo bat ekarri digute. Ez dakigu nori eman (kar, kar)”, esan du Izaskunek.

Lezama, lehenengoa

Txorierriko lehenengo bankua Lezaman jarri zen martxan 2013ko udan, Jubilatuen Elkartaren eskutik. Lehen, Caritas elkartek ematen zuen zerbitzua. “Parrukiako batzar batean sortu zen gaia, eta Bego Intxaurek, Mari Carmen Bilbaok eta hirurok hartu genuen proiektua aurrera eramateko ardura”, esan digu Mariasun Oleagordiak. Lezaman, 10-12 familiak jasotzen dituzte jakiak Udaletxeko beheko lokaletan. Askotan, jasotakoa ez da nahikoa izaten, eta elkartekideek euren poltsikotik betetzen dituzte zuloak. Herriarregiana ere jotzen dute, janariak gainera, garbitasuneko eta higieneko produktuak ere lortzeko. “Herrian beti ibiltzen gara gauza eske, eta beldurra digute (kar, kar)”, dio Mariasunek txantxetan. “Herri txikieta, guztiok jakiten dugu zer gertatzen zaion ondokoari. Gure era-

biltzaile gehienei lotsa ematen die elikagaiak eskatu behar izateak, baina, tira, zer egingo diogu, behar handia dago-eta”.

Zamudiori dagokionez, Lagunandre elkarteko sei taldekidek kudeatzen dute zerbitzua. 2014ko apirilean jarri zen bankua abian, eta 40 familiari ematen diete janaria gaur egun Caritasen lokalaren alboan, eliza ondoko aparkalekuan. Zamudion ere egiten dira kanpainak jasotzen dituzten elikagaiak osatzeko. “Zamudio-ko Truiuondo zahar egoitzak lagunduko digu aurtan, eta kutxa handi bat ipiniko dugu bertan, jendeak nahi duena utz dezan kutxa horretan: esnea, olioak...”, dio Eva Mendozak.

Larrabetzun, 2014ko urtarrilean eman zioten hasiera elikagai-bankuari, eta Gure Etxea jubilatuen elkartea da haren kudeatzailea. Guztira, 11 familiari ematen diete janaria, eta Gure Txokoaren lokaletan banatzen dira jakiak, eskola ondoan. Karmele Etxebarriari hiru lagunak laguntzen diote janaria jasotzen, sailkatzen eta banatzen. “Zaila da herri txiki batean eskatzea”, dio Karmelek. Zaila da, bai, baina gosea senda daiteke horrela.



AmAr
ileapaindegia

Astearte-ostiralea:
9:00-19:00
Laburuntza:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behe
Zamudio
94 4520419

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W

www.gaminiz.com



**Egin lo Delux,
esnatu pozik.**

SUITE DELUX
MARKA EKLSIBOAK, ATSEDENERAKO

SUITE DELUX
.com

LEIOA
Leioa S.A.
944 317 025

DERIO
Derio S.A.
944 317 025

EIBAR
Eibar S.A.
944 317 025

Larrabetzu

Abenduak 31, eguaztena

–12:00: "Uriari buelta" Sahararen aldeko lasterketa, plazan. Izen-ema-tea: azukre kilo bi.

Urtarrilak 5, astelehena

–16:00-21:00: Puzgarriak, ohe elasti-koak, musika... frontoian.

–18:00: Nagusientzako txokolatada eta dantzaldia, Gure Etxean.

Hori Baik antolatuta

Abenduak 23, martitzena

–15:00: Olentzeroren bila, plazan.

Abenduak 24, eguaztena

–18:00: Olentzero, serran.

Abenduak 25, eguena

–Bertso saioa eta ostein, Dj Bull.

Abenduak 27, zapatua

–Durangoko izotz pista irteera.

Abenduak 31, eguaztena

–12:00: "Uriari buelta" lasterketa.

–Gauean: Kotiloia.

Urtarrilak 4, domeka

–09:30: Auzoetatik lasterketa.

–18:00: Beira taldea.

Urtarrilak 6, martitzena

–18:00: Umeentzako pelikula eta txokolatada.

Urtarrilak 9, barikua

–22:00: Kontzertuak.



a: Anboto aldizkaria



a: Derioko Udala

Derio

Abenduak 24, eguaztena

–10:00: Kirol jokoak familian, kiroldegian. Gurasoen elkarteak eta Kirol Arloak antolatuta.

–11:00: Xakearen Tokiko Opena, kiroldegian. Derio Xake taldeak antolatuta.

–17:00: Harrera Olentzerori eta Mari Domingiri, Errekalde parkean. Laguntzailak: Tximintx, Ipar Alde eta Jantzi Jarauntsi Troupe.

Abenduak 26, barikua

–19:30: "Argazki-kazetagitza gatazka armatuetan" hitzaldia, Kultur Birikan. Andoni Lubakiren eskutik. Derio Argazki Taldeak antolatuta.

Abenduak 27, zapatua

–10:00: "Zelan egin argazki-erreportaje bat" tailerra, Kultur Birikan. Andoni Lubakiren eskutik. Derio Argazki Taldeak antolatuta.

–11:00-14:00 eta 16:00-19:00: Gabonetako haur-parkea, kiroldegian.

Abenduak 29, astelehena

–18:00: "Xakeak pentsatzen irakasten du eta dibertigarria da" hitzaldia, Gurea

Aretoan. Leontxo Garcíaren eskutik. Xake taldeak antolatuta.

–20:00: Gabonetako gala, Kultur Birikan. Danerik Paraje! elkarteak eta Udalak antolatuta.

Abenduak 30, martitzena

–18:00: Nagusien jaia, Kultur Birikan. Nagusien Etxeak antolatuta.

Abenduak 31, eguaztena

–10:00: Kirol jokoak familian, kiroldegian. Gurasoen elkarteak eta Kirol Arloak antolatuta.

–11:00: VIII. Aldibereko xakea, Kiroldegian. Xake taldeak antolatuta.

Urtarrilak 3, zapatua

–19:00: "Lur" dantza eta musika ikuskizuna, Frontoian. Lainomendi dantza taldearen eskutik.

Urtarrilak 5, astelehena

–18:00: Erregeen kabalgata, elizatik udaletxera.

Urtarrilak 9, barikua

–20:30: VIII. Gospel zikloa, Gurea Aretoan. The upper room gospel taldearen eskutik. Sarrerak: 3€.

Urtarrilak 10, zapatua

–19:00: Olerki errezitaldia, Gure Aretoan. Sutondoan elkarteak antolatuta.

HABAGITEGIA
URDAITEGIA
IMAZ

MUNGIALDE ETORBIDEA 2
TLFNOA: 94 454 10 75
DERIO
Eskerririk asko
etortzeagaitik

KAFETEGIA
IMAZI
JATETKEA

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

HORTZ - KLINIKA

Jasone Azurmendi Garai

Pakearen Plaza, 1 - 1º A
DERIO
Telefonoa: 944 543 705

Abenduak 24, eguaztena

–09:30: Herritik abestea, Zamudioko Kamara Koralarakin.

–12:00: Zamudioko Kamara Koralarakin abestea, kiroldegian.

–14:30: Bazkaria, Kultur Etxean.

–16:30: Herritik abestea.

–17:00: Olentzeroren bila joatea, abesten jarraitzeko.

–18:30: Olentzerori gutuna ematea, txokolatada eta azoka solidarioa.

Abenduak 26, barikua

–16:00-21:00: Gabonetako haur-parkea, kiroldegian.

Zamudio

Abenduaren 27tik 30era

–Gabonetako haur-parkea, kiroldegian.

Abenduak 27, zapatua

–Euskal Selekzioaren partida, San Mamesen. Kataluniaren kontra.

Abenduaren 27tik urtarrilaren 5era

–Gazte Estazioa: filmak, irteerak, kotiloia...

Urtarrilak 10, zapatua

–11:00: Umeak Gabonetan oparitutako jostailuekin elkartzea, eta erabiltzen ez diren jostailuak batzea. Kultur Etxean.



Lezama

Abenduak 24, eguaztena

–17:00: Olentzero, plazan. Musika, Ekidazu abesbatzaren emanaldia, dantzak, kalejira, opariak banatzea... Udalak, Astrapala musika taldeak, Zorritzetan euskara elkarteak, Kurutze dantza taldeak eta Ekidazu abesbatzak antolatua.

Abenduaren 26tik 30era

–Cabarcenora irteera. Gaztegunek antolatua.

Abenduak 29, astelehena

–Tximiparkera edo Zamudioko Gabonetako haur-parkera irteera. Ludekak antolatua.

Abenduaren 29tik 30era

–Senda Viva eta Errege Bardeako Natur Parkera irteera. Gaztelekuak antolatua.

Urtarrilaren 2tik 3ra

–11:30-13:30: Gabonetako haur-parkea, frontoian.

–16:30-20:30: Gabonetako haur-parkea, frontoian.



a: Zamudioko Udala





Sondika

Abenduak 24, eguaztena

–17:00: Olentzero eta Belen biziduna, udaletxean. Txuma Olagüe abesbatzaren, Olagüe talde koralarren, Gorantzaileak dantza taldearen, Ipar-Elaiak txistu taldearen eta Goronda Gane gurasoen elkartearen eskutik.

a: Sondikako Udala



Abenduak 24tik urtarrilaren 7ra

–Ludoteka I eta II: tailerrak, filmak, jolasak...

–Gaztetxea: bakarriketak, tailerrak eta kotiloia.

Abenduak 30, martitzena

–12:00-14:00: Txiki Eguna, Goronda Beko kiroldegian.

–17:00-20:00: Txiki Eguna, Goronda Beko kiroldegian.

–Elikagai ez galkorrek batuko dira, Elikagaien Bankurako.

Abenduak 31, eguaztena

–12:00-14:00: Txiki Eguna, Goronda Beko kiroldegian.

–17:00-20:00: Txiki Eguna, Goronda Beko kiroldegian.

–17:00: *Ttiki Ttaka* umeentzako musika ikuskizuna, Goronda Beko kiroldegian.

Urtarrilean zehar

–Gabonetako postalak erakusgai, liburutegian.

Urtarrilak 5, astelehena

–18:00: Errege Magoen kabalgata, aireportuko terminal zaharrean.

Urtarrilak 18, domeka

–Eneabe-Ubidera irteera. Izena ematea: urtarrilaren 14ra arte, liburutegian.

Loiu

Abenduak 24, eguaztena

–10:00-13:00: Ludoteka, Zabaloetxeko Kultur Etxean.

–12:00: Olentzero, Elotxelerrin: Bolinaga kaletik Elotxelerriko plazara.

–17:00: Olentzero, Zabaloetxan: Klaratarretatik frontoira.

Abenduak 26, barikua

–10:00-13:00: Ludoteka, Zabaloetxeko Kultur Etxean. Gabonetako Postalen Lehiaketa.

Abenduak 29, astelehena

–10:00-13:00: Ludoteka, Zabaloetxeko Kultur Etxean.

–18:00: Kidam magoa, Zabaloetxeko Kultur Etxeko Ludotekan.

Abenduak 30, martitzena

–Gabonetako haur-parkera irteera (BEC). Informazioa, Ludotekan.

Abenduak 31, eguaztena

–10:00-13:00: Ludoteka, Zabaloetxeko Kultur Etxean.

Urtarrilak 2, barikua

–11:30-13:30 eta 16:30-19:30: Gabonetako haur-parkea, Zabaloetxeko frontoian.

Urtarrilak 5, astelehena

–10:00-13:00: Ludoteka, Zabaloetxeko Kultur Etxean.



Kidam magoa

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-ikusiak, erorkorrak
Auzokoen kumutazioak
Mantuekiko garbi-ikusiak
Bulegok eta lokalak
Oleru amariako garbiketa
Ikastetxeak
Zabon biltzeak

Besaide Plaza, 1 - B° Aldekoa
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNCHALDE ETORRIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai jarraun Facebooken

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK

lasai

Luis M° Asensio
Terapeuta naturopata

Larrabarri, 1 lonja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatialasai@gmail.com

Gorbeia, 7 Behea
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 452 21 41
Faxa: 94 452 21 42
www.gestionzamudio.com
gestionzamudio@gestionzamudio.com

Gestión Zamudio

Aholkularitza Fiskala

Jon Vázquez García
AKTUARIO-EKONOMILARIA

ZAMUDIO MOTOR

ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

IDENTICA

94 452 1616
94 452 1624

Pol. Torrelagotti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

Urte
zoriontsu
eta
euskalduna
opa dizue

arrekkikili

Larrabetzuko euskara elkarteak

POLITENA TABERNA

Andra Mari
Larrabetzu, Bizkaia
tel.: 94 455 84 07

Aliprox

Ondo para jaietan!

INES JANARI-DENDA

Iturrikoetxea, 3
48195 Larrabetzu
T: 94 455 84 33

BIDE-GORRI

Txirbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

Askotariko pinxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WiFi gunea

FOTERI TABERNA

Andra Mari Kalea, 22
Teléfono: 455 80 98

48195 LARRABETZU-Bizkaia

IRUSTA TABERNA

EGUNEROKO MENUAK
GXUEZ / MUSIKA ETA PARRANDA

Gabonetan, etxean gura doguz

LARRABETZU
Tel.: 94 455 84 77

Moro's Pub

Ikastegi homologatua

LARRABETZU MUSIKA ESKOLA

ZORIONAK ETA
URTE BERRI ON!

Errebale, 7 behea
94 455 70 66

ETORKI TABERNA

Eguneroko menua
Asteburuetan menu bereziak

Andra Mari Kalea, 1
Telf.: 94 455 81 95

48195 LARRABETZU
(Bizkaia)

Guztioi dagokigun gaitza

Erandioko komisariako Ikerketa Saileko ertzain bi, Yolanda eta Juanjo, Deriora etorri dira Ertzaintzak genero indarkeriari aurre egiteko borrokan duen eginkizuna azaltzera. Ekitaldia Sutondoan elkarteak antolatu zuen Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna dela-eta. Biktimak babesten dituzten profesionalen ikuspuntua ezagutu nahi izan dugu.



t: Itxaso Marina

Segurtasun Saitetik jakinarazi den moduan, Ertzaintzak genero indarkeria pairatzen duten 4.765 emakume babesten ditu gaur egun. Emakume horietako 1.103k Ertzaintzarekin zuzeneko lotura duen Bortxa telefonoa dute; eta 34k, eskolta-zerbitzua. Tratu txarren emailaetako 31k daramate eskumuturreko elektronikoko bat. Bizkaiko datuei dagokienez, Ertzaintzak 2.512 emakume babesten ditu; Bortxa telefonoa 465 emakumeri eman diete; eta eskolta 14ri ipini diete. Eskumuturreko elektronikoa 21 gizonen daramate. Ertzaintzak genero indarkeriari lotutako 2.801 gertakari erregistratu zituen iaz gure probintzian, eta tartean 2.249 emakume egon ziren.

“Ezinbestekotzat jotzen dugu kolektibo guztiei zuzendutako prebentzio-hitzaldiak antolatzea. Gertakarietarik asko, esate baterako, nerabeen artean ematen dira; antzinako jarrerak errepikatzen dituzte”. Datuen arabera, genero indarkeriak goranzko joera eduki du 2004tik hona. “Zaila da ulertzen. Ertzaintzan biziki kezkatzen gaituen gaitza da eta baliabide asko zuzentzen ditugu indarkeriari aurre egiteko. Komisaria guztietan biktimekin lan egiten duten ertzainak daude, eta jarraipena egiten diegu hasieratik arriskurik ez dagoela ziur dakigun arte”.

Ertzaintzak emakumea bera komisarian azaltzen delako izaten du tratu txarren berri; epaileak hara bidaltzen duela; edo biktimak edo hirugarren batek

deitzen duelako eraso salatze. Zenbait kolektibotatik ohartarazi denez, badaude emakumeak euren adierazpena zalantzan ipini den susmoa hartu dutenak. “Egia da bakoitzak bere sentsibilitatea duela, baina uste dugu lankide guztioi saiatzen garela biktimari ahalik eta tratu beroena ematen”.

Emakumeak tratu txarrak salatzen dituenean, protokolo berezi bat ipintzen da martxan. Besteak beste, bere eskubideak zeintzuk diren eta eraso berriro ez jasateko eskura dituen baliabideak azaltzen zaizkio. “Eginbideak zabaldu egiten dira beti, nahiz eta biktimak salaketa ipini nahi ez izan, eta alde bakoitzari zitzazio bat ematen diogu epaitegian azal daitezen. Normalean, izapideak azkar doaz eta erabakiak erasoaren arabera eta biktima eta

erasotzailearen egoera eta ezaugarrien arabera hartzen dira”.

Lau arrisku-maila daude: oinarritzkoa, hala-holakoa, handia eta berezia. Eta bik-tima bakoitzari dagokion maila kontuan hartuta, babes-neurri batzuk edo besteak ezartzen zaizkio, hala nola etengabeko zaintza, kontrazaintza zerbitzua, eta erru-tinen eta inguruaren zaintza. Neurri ho-rietaz aparte, erasotzailea era zorrotzago-an kontrolatu beharko litzatekeen galde-tu diegu guk. “Guri ez dagokigu hori az-tertzea. Pertsonen askatasunean eragina duten neurriei buruz ari gara eta arlo ho-rretako erabakiak agintari eskudunak hartu behar ditu. Protokolo bat dago, eta guk hori jarraitu baino ezin dugu egin. Adibidez, guk ezin diogu erasotzaile bati bere etxera sartzea debekatu, epaile batek urruntze-agindurik eman ez badu”. Urruntze-agindua ematen den arte zen-bat denbora pasa daitekeen galdetu die-gu, eta azkar ematen dela erantzun digu-te. “Ertzainek zein epaileak lehenengo momentutik ikusten dugu argi zeintzuk diren kasu bakoitzean hartu beharreko neurriak”.

Ikusgai egin

Ertzainek biktimekin ez ezik eraso-tzaileekin ere badute zuzeneko harrema-na. “Atxilotu eta, nahi izanez gero, adie-razpena hartzen diegu. Beren jarrera zu-zentzeko eskura dituzten baliabideen berri ere ematen diegu. Baina oso gutxi azaltzen dira programetan parte hartze-ko prest”. Gakoa programan, adibidez,

016

arreta-telefonoa

227 gizonak hartu zuten parte iaz. Gizon horietako 91 lehenengo aldiz sartu ziren programan, eta gainontzekoak aurreko urteetan hasi ziren bertan. Parte-hartzaileetako 168 bizkaitarrak ziren. Datuen arabera, parte-hartzaileen % 2k euren borondatez jotzen dute programara; gai-nontzekoek epaileak hala aginduta egi-ten dute.

Abenduko alea itxi orduko, eta beti ere datu ofizialak kontuan hartuta, gene-ro indarkeriak 50 emakume hil ditu aur-ten Estatuan; 779 emakume, 2004tik ho-na. Aurtengo hildakoen % 31ek beren bi-kotekidea salatu zuten aurretik; 20 aldiz ere, haietako batek. Hildakoetako bat Biz-kaikoa zen. “Zaila da biktima % 100ean babestea; aukera bakarra bizkartzaina ipintzea da. Eta, arrazoiak epaitu barik, emakume bakoitzak badu bere egoera:

batzuek ez dute bizkartzainik nahi; beste batzuek ez dute bikotekidea salatu nahi; edo bigarren, hirugarren... aukera ema-ten diote; edo ez dakite genero indarke-riaren biktimak izan daitezkeela... Baina, bai, hildako bat dagoen bakoitzean, ho-rrek esan nahi du zerbaitek huts egin duela”. Datuei erreparatuta, salatzeak ez duela ezertarako balio pentsatzen dute askok. “Beno, salaketa ipintzeak badakar tratatu txarren emaila biktimaren inguru-tik aterako dela, eta merezi du”.

Askotan salaketa faltsuak argudiotzat erabiltzen dira genero indarkeriari sines-garritasuna kentzeko. Hala ere, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren arabera, 2009. urte-tik hona ipinitako salaketan % 0,005 bai-no ez dira faltsuak izan. Genero indarke-ria etxeko atletik barruko arazoa dela pen-tsatzen dute batzuek oraindik ere. “Baina guztioi dagokigun gaitza da, erakundeok ahalegin handia eta baliabide asko ipin-tzen gabiltza hura ezabatzen. Duen garrantzia eman behar diogu. Ikusgai egin behar dugu, eta ezin ditugula jarrera horiek onartu jakinarazi”.

Ertzaintzak genero indarkeria pairatzen duten ia 5.000 emakume babesten ditu gaur egun

URsula TOMÁS ALMAGRO
KIDE-ZENBARRIA: B103462

**PSIKOLOGIA
PEDAGOGIA
LOGOPEDIA**

UMEAK ETA NERABEAK

Hitzorduek:
603 755 279
ursula@cop.es

Pakearen Plaza 3, behea
48160 DERIO
(Estudios 10 ikastegia)

Egutegi bat zure argazkiekin '15

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

9'90 €
-TIK AURRERA

4'30 €
-TIK AURRERA

2'76 €
-TIK AURRERA

25'00 €
100 ALE

6'57 €
-TIK AURRERA

1'75 €
-TIK AURRERA

Bizkaiko Teknologia Parkea (Zamudio) · 94 431 71 36 · zam@cianoplan.es · www.cianoplan.es

a: Koikili Aterpetxea

Koikili Aterpetxeak ateak zabaltu barri dauz Otxandion. Itzarri Taldearen egitasmo barritzaile bat da, eta turismo aktiboa sustatzea dau helburu. Horretarako, natura, ondarea, atsedena eta euskara buztartuko dauz.

Aterpetxea Otxandioko erdigunean dago kokatuta, alde zaharraren bihotzean. Mendiak inguratuta, lekuak parekorik ez dauan paradisu natural bat eskaintzen deusku, inguruaz disfrutetako eta bere ondarea ezagutzeko.

Hotel/ostatu izaera dauan aterpetxe bat da: 300 metro koadrokoa eta, behelaldeaz gainera, hiru solairu daukana. Hogeita hamabi lagunentzako tokia dau, eta, besteak beste, logela pribatuak zein konpartituak, jangelea, sukaldea, irakurtzeko txokoa eta atsedena hartzeko gunea atondu dira bertan. Eraikinak igongailua be badau eta ezinduentzat egokituta dago.

Baina Koikili Aterpetxea atsedena hartzea baino gehiago eskaintzen dauan toki bat da. Halan, turismo aktiboa ardaztat daukala, aukera sorta zabala ipinten dau bere bezeroen eskura. "Ezberdintzen gaituen ezaugarria kirolagaz zein naturagaz daukagun harremana da. Ibiltaldi gidauak eskaintzen doguz, oinez zein bizikletaz egin ahal diranak, Otxandioko pasaiaz modu osasuntsu batean disfrutetako eta bertoko altxorak, gure basoak, zuzenean ezagutzeko. Era berean, gure gidariek Otxandioko historian murgiltze-

Turismo aktiboa



Lagun arteko inaugurazinoa



Koikili Aterpetxea abenduaren 4an inauguratu eben, eta egun osoan zehar hainbat bisitaldi antolatu ebezan, herritarrek zein lagunek instalazioak ezagutu eiezan. Horrezaz gainera, goizean bilera bat egin eben kulturaren eta turismoaren inguruko hainbat agentegaz, esperientziak eta eretxiak partekatzeko, eta arratsaldean kultura eta kirol munduko lagunak hurbildu ziran aterpetxera. Horreen artean, Maider Unda, Martin Fiz eta Marino Lejarreta egon ziran. Konbidatuei onddoak protagonista izan ziran kopau berezi bat eskini eutseen. Musikea be protagonista izan zan eta Alex Sardui eta Mikel Caballerok, Gatibu taldekoek, kontzertu akustiko txiki bat emon eben.



ko aukerea emongo deuskue, herriaren bilakaerea eta monumenturik garrantzitsuenak ezagutzeko”.

Ikastaroak be eskaintzen dabez Koikili Aterpetxean. Alde batetik, mikologiaren gaineko ikastaroa egin daiteke bertan. Onddoak mahai gainean ipini eta hareek sailkatzen ikasiko dogu. Zelan kozinatu be azalduko deuskue, eta ale batzuk emongo deuskuez etxera eroateko eta ikasitakoa praktikan ipinteko. Beste alde batetik, garapen pertsonalerako ikastaroa be emoten dabe, eta barnetegi zerbitzua eskaintzen deuse euskera ikasten dabilzanei zein euskaltegiei. Otxandioko euskalkiaren berezitasunak ikasteko tailerrak eta berbaldiak be antolatzen dabez.

Esperientziak partekatzea

Geure burua zaindu eta erlaxatzeko momentua be topau daiteke aterpetxean. Izan be, bainu turkoa eta kontrastedutxak erabilteaz gainera, masaje bat edo erlaxatzeko terapia bat eskatu ahalko dogu. Baita basoko zaporea ahora eroan be, Koikili Aterpetxean onddoak erabilita egindako zenbait produktu eskaintzen dabezalako gosarietan. Gainera, eguneroko hamarretakoa ez ezik landa-pintxo bereziak be prestaten dabez.

Zerbitzuak profil ezbardinetako lagunengan pentsatuz diseinatu dabez, eta familiei, lagunei zein talde handiei dagoz zuzenduta. “Sustatzen dogun turismo-eredua gure enpresa-balioei dago lotuta: euskara, kirola, pertsonak eta natura. Eta gurean balio horreekaz bat egiten daben lagunak batu gura doguz”. Horren haritik, partekatzea aterpetxearen beste ezaugarrietako bat da, eta egitasmoaren sustaileek bezeroak ez esperientziak partekatu eta istorioak sortzea be badaukie helburu. “Aterpetxe hau ohiko landaturismoaren alternatiba moduan sortu da eta gure ereduagaz turismo aktiboa sustatu gura dogu, aterpetxe-turismo barritzailea, hain zuzen be”.



SARRERAK AURRETIK EROSTEKO:
TXARTELEDEGIAN
Edozein ekintza hasi baino
ordu bat lehenago






SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13

ANTZERKIA

FIGURANTES

Ados Teatroa (komedia)
Urtarrilak 17, 20:00etan
Prezioa 10 €





BIG HERO 6
108' AG (2D)
Urtarrilak 10, 18:00
Urtarrilak 11, 17:00




EL HOBBIT: LA BATALLA DE LOS CINCO EJÉRCITOS
144' EG-7
Urtarrilak 10, 20:30 (2D)
Urtarrilak 11, 19:30 (3D)
Urtarrilak 18, 19:30 (2D)



MORTADELO Y FILEMON CONTRA JIMMY EL CACHONDO
90' EG-7 (2D)
Urtarrilak 18, 17:00



STAND BY ME DORAEMON
95' AG (2D) EUSKARAZ
Urtarrilak 24, 18:00
Urtarrilak 25, 17:00



SE NOS FUE DE LAS MANOS
85' (2D)
Urtarrilak 24, 20:30
Urtarrilak 25, 19:30

NOCHE EN EL MUSEO 3: EL SECRETO DEL FARAÓN
97' AG (2D)
Urtarrilak 31, 18:00
Otsailak 1, 17:00

INVENCIBLE
137' EG-12 (2D)
Urtarrilak 31, 20:30
Otsailak 1, 19:30

ZINEA





2D: 4 € 3D: 6 €

*oharra: produktoren behar-izanen arabera programazioak aldatuak jasan ditzake

Opariak banatu ditugu Aikorlagunen artean eta saridunak zerrendan dituzue

Hurrengoa zeu!

■ Errigora saskia
JASONE ASTOLA (Lezama)

■ Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren finalerako sarrera bi
NEREA ELEXPURU (Loiu)
JASONE HERRERO (Zamudio)
(Bizkaiko Bertsotzaileen elkartearen eskutik)

■ Toti Martinez de Lezearen *Enda Lur* liburua
JOKIN BATIZ (Lezama)
(Toti Martinez de Lezearen eskutik)

■ Bilbao Basket ikusteko sarrera bi
INES SERRANO (Larrabetzu)
(Bilbao Basket taldearen eskutik)

■ Izenaduba Basorako sarrera bi
AGUSTIN ABASOLO (Sondika)
UNAI UGALDE (Lezama)
(Izenaduba Basoaren eskutik)

■ Kepa Junkera & Sorginak liburu-diskoa
ITZIAR FOLLA (Larrabetzu)
(Kepa Junkeraren eskutik)

■ Kherau taldearen *Aukhera* diskoa
ALBERTO BILBAO (Loiu)
(Kherau taldearen eskutik)

■ Gaizka Peñafiel *Lagunartean* diskoa
MONIKE PAULO (Zamudio)
(Gaizka Peñafielaren eskutik)

■ Mari Ttipia liburu-sorta
IRATXE AIARZA (Zamudio)
(Sua edizioak-en eskutik)

■ *Euskal Herria* liburua
IKER SANZ (Zamudio)
(Sua edizioak-en eskutik)

■ Katamalo taldearen diskoa
ITZIAR IBARRONDO (Sondika)
ARIANE DE DOMINGO (Derio)

■ Doctor Deseo taldearen *Busco en tus labios* diskoa
IRATI ABONA (Zamudio)
(Baga-Biga musika ideak-en eskutik)

■ Urtz taldearen *Astiro* diskoa
AITOR AZKORRA (Sondika)
(Baga-Biga musika ideak-en eskutik)

■ Esne Beltza taldearen *Gora!* diskoa
MIGUEL ANGEL LEKUE (Larrabetzu)
(Baga-Biga musika ideak-en eskutik)

■ Hesian taldearen *Hegalak astinduz* diskoa
ZURIÑE AURTENETXE (Zamudio)
(Baga-Biga musika ideak-en eskutik)

■ Eskean kristo taldearen *Azote kaldüz* diskoa
ZIORTZA SANZ (Derio)
(Baga-Biga musika ideak-en eskutik)

■ Korrontzi taldearen *Tradition 2.1* diskoa
TXARO ERKOREKA (Derio)
(Baga-Biga musika ideak-en eskutik)

■ Txapelpunk taldearen *Los mejores de los peores* diskoa
ARITZ ALBAIZAR (Larrabetzu)
(Baga-Biga musika ideak-en eskutik)

■ Governors taldearen *Morphinapolis* diskoa
ANDONI ABURTO (Zamudio)
(Baga-Biga musika ideak-en eskutik)

■ Entolsarmiento taldearen *Zure mundua* diskoa
LOURDES PRUDENCIO (Lezama)
(Baga-Biga musika ideak-en eskutik)



■ Errigora saskia
JON LLONA (Zamudio)



■ Athleticeko nesken taldearen kamiseta
JOSE RAMON MUNGIA (Zamudio)
(Amaia Olabarrietaren eskutik)



■ Toti Martinez de Lezearen *Enda Lur* liburua
ALBERTO OLABARRIETA (Lezama)
(Toti Martinez de Lezearen eskutik)

ZELAN?

POSTAZ:

Aikor!lagun fitxa(*) bete eta bidali:
Aresti, 2 behea - 48170 - Zamudio

E-POSTAZ:

aikortxori@aikor.com helbidera

TELEFONOZ:

94 452 34 47
688 86 41 35

AHOZ:

Zure herriko euskara
elkarteko kideren bati esan

(*) Fitxa aldizkarian bertan eta
erakundeetan, liburategietan,
komertzioetan... utziko ditugun
diptikoetan topatuko duzue.



Egin zaitez Aikor!lagun

Etxe bat, lagun bat



Egin zaitez Aikor!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonia: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

30 euro _____ Beste bat _____

Orri hau helbide honetara bidali:

Aikor! Aldizkaria

Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira. Fitxategiaren erantzulea TOTAN TXORIERRIKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuak kudeatzeko ditu. Kontrakoa esaten ez diguzun bitartean, zure datuak kudeatzeko baimena dugula ulertuko dugu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horetarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

t: Xabier Díaz, BTEK-eko zuzendaria

Telefono adimendunak eta haietara konektatzen diren eramangarriak edo *wearable*-ak (hau da, erloju adimendunak izateaz gainera, pultsua, odolaren oxigeno-asetasuna, pausoak edo beste parametro batzuk neurtzen dituzten eskumuturrekoak, arropak edo gailuak), sarean dauden eta etxeko zein autoko tenperatura, hezetasuna edo gas-ihesaren arriskua detektatzen dituzten sentoreak... 2015 urterako, 50 mila milioi inguru gailu eta gailutxo egongo dira sarean. "Gauzen Internet" edo "Internet of things" deritzonak sentore txikiak kopuru izugarri batean oinarritzen da, eta ezinezkoa izango da haiek guztiak kable elektrikoaren aramu-sare baten bidez argizatzea.

Hori dela-eta, aparatutxo horiei energia emateko modu berrien bila dabilta hainbat enpresa, unibertsitate, eta iker-

keta- eta teknologia-zentro. Hona hemen bidean dauden egitasmoetariko batzuk:

Zarata, energia-iturri?

Zarataren bibrazioez baliatuko den "Bolt" mikrogeneradorearen diseinuan dihardu MicroGen enpresak. Sistema horrek 1 Hz-tik gorako bibrazioak aski izango ditu sentore txikiak behar duten energia lortzeko; ez, ordea, beste tamaina batekoak elikatzeke.

Wi-fi, 4G, TB... uhinak

Uhin guztiak energia dira. Printzipio horretan oinarriturik, irrati, TB, mugikor zein wi-fi uhinen energia energia elektriko bihurtzen duen prototipo bat garatu dute Whasingtongo Unibertsitateko iker-

lariek. Uhin horiek, ordea, ez dira oso energetikoak, eta, gainera, wi-fi eta mugikorren kasuan uhin-emisioa ez da jarraitua. Lagungarriak dira, bai, baina oraingo ez dira sistema autonomo moduan ikusten.

Matrix: bateria geu gara

Edo antzeko zerbait... Gure gorputzaren tenperatura elektrizitate bihurtzeko erabiltzen den beira malgu batean sartutako prototipo bat aurkeztu du Korea Advanced Institute of Science and Technologyko talde batek. Eraginkorra izan dadin, bero-iturriaren eta giroaren arteko tenperatura-diferentzia gutxienez 31 gradukoa izan behar da, eta horregatik aurreikusten da teknologia hori baliagarria dela *wearable*-ak elikatzeke.

Hidrogenoa, mugikorretan

Euskal Herriko Unibertsitateko Noelia Ruiz Jimenez ikertzailea erregai-pilen diseinua hobetzen dabil. Erregai-piletan hidrogenoa eta oxigenoa elkartzen dira ura sortzeko, eta elektrizitatea ere sortzen da prozesuan. Airean oxigenoa dagoenez, mugikorretan hidrogeno-biltegi txikiak baino ez ditugu beharko.

Igurtzi, igurtzi... laztanen energia

Estatu Batuetako ikerlari talde batek eta Txinako beste batek sistema bat garatu dute objektuen arteko marruskadurak eragiten duen energia elektrostatikoaz baliatzeko. Era horretan, geure mugimendua aprobetxatzea genezake elektrizitatea sortzeko eta *wearable*-ak kargatzeko.

Ikusteko dago sistema horietako bat edo beste benetan erabilgarriak izango diren. Eta hori jakiteko, ikertu, garatu eta probatu baino beste biderik ez dugu.



<http://www.scientificamerican.com/article/power-to-the-internet-of-things/>
http://www.basqueresearch.com/berria_irakurri.asp?hizk=E&Berri_Kod=5196#.VlcPRNKG-E4
<http://www.agenciasinc.es/Noticias/Un-nuevo-generador-convierte-el-movimiento-humano-en-electricidad>

CONSTRUCCIONES
VALDUEZA

ERABERRITZEAK
IGELTSEROTZA, ORO HAR

Fatxada termikoak eta akustikoak

josevaldueza@gmail.com

609 97 15 14

HARATEGIA • URDAITEGIA

VICTOR

ARTESANAL ELABORAZIOA

Okela ekoizten dugu:
odolosteak, txorizoa,
bistorra, solomoak...

Plater aurrekoizina

Goiri, 4 - 48150
Sondika - Bizkaia

94 453 16 17

Arinaiztarrak eta euskaldun diglosikoak



t: Juan Luis Goikoetxea / i: Aritz Albaizar

Gure 1988ko 2000 HIZTEGIAn era honetara definitzen da Arinaiztar: “adj. eta izlag. mote que se pone a aquellos vascos que siempre están aprendiendo euskara

sin lograrlo nunca (de **ikasten ari naiz**)”. 70eko hamarkadan erabilera handiko hitza izan zen arinaiztar.

Guk AIKOR! honetan Arinaiztarrei euskaldun diglosikoak deituko diegu. Arinaiztar berbak gutxiespen zentzua dakar

gure belarrietara, ari delako, baina lortu gabe. Hala ere, Arinaiztarrak maila bateko berbeta badaki. Horregatik izendatzen dugu euskaldun diglosiko, hots, euskaldun.

Dena den, adiera baten denok gara arinaiztar, ezen Federiko Krutwig poliglotak –oharturik hizkuntzak ikasteari emana nintzela– argitu baitzidan: “Bizitza guztian ama-hizkuntza ikasten jarduten baduzu ere, ez duzu inola ere osorik ikasiko”.

Euskaldun diglosikoa nor den Erramun Baxokek azaltzen digu: “Bagenekien euskara plazan, merkatuan, elizan eta pilota partidetan zela. Frantsesa, kasu, eskolan, jendarmerian eta postan zen. Diglosia funtzionala deitu horretan bi hizkuntzak bizi ahal dira, bi funtzio ezberdinak betetzen dituztelarik”.

Diglosia funtzionala gaurko Txorierrira aplikatuz, esan genezake, euskaldun berri asko gauza direla ume txikiekin, lagun artean edo erosketetan euskara erabiltzeko. Gero, erdaraz mintzatu arren lanbidean edo abokatuarenean. Era horretara, euskarak eta gaztelerak funtzio desberdinak dituzte; horien bizitzan euskarak leku ziuera du –oinarrizko euskarak– baita gaztelerak ere; hizkuntza biak bizi ahal dira euskaldun diglosikoarekin.

Onorioz, batetik, ez dezagun onartu inor “ari naiz” esanik erdarara pasatzea; eska diezaigun dakiena erabiltzeko; bestetik, ez diezaigun eskatu ez dakien arloan –ezin duenean– euskaraz egiteko. Izan gaitzeen: elebakar, elebidun nahiz diglosiko, baina euskaldun.

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

- Especialitate guztiak zentro bakar batean
- Aurrekontua doan
- Especialitatea: umeak

Uribi 7, beheak
48160 DERIO (Bizkaia)

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

lezama
consultorio veterinario
albaitaritza klinika
www.consultorioveterinariolezama.com

J.R. Galdona Madariaga
BI-515

Medikuntza orokorra
Txertaketak
Parasitoak hil
Mikrotxipa
Kirurgia
EKG
Analisiak
Ospitalizazioa
Ekografiak

servicio de urgencias 24h

94 455 56 19 Aretxalde, 21bis 48196 Lezama



**ASADOR
ARAMENDI**

**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK**

Arteaga auzoa, 119
Tlfnoa.: 94 452 11 58
ZAMUDIO

Tel./faxa: 94 452 06 64
Torrelanragoiti ind. P-7
48170 Zamudio (BIZKAIA)

Restaurante
JANA JATETXEA



Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak

Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra



Arbolentxa kalea, 8 - 1. izk.
ZAMUDIO
Tel/Fax: 94 452 29 10
Móbil: 665 70 33 12



Iñaki 94 455 65 08
Jabi 94 452 14 31

**Magalarte
Txakolina**

ARETXABALETAK IZOKIA ETA BOTILAROTIA

75 cl.
10,75 % vol.

Bizkaiko Txakolina
Denominación de Origen

Etxeko sukaldaritza: Gabonetako menua

Zainzuri-kremea

Errezetak: Maite Lekerika, sukaldaria



Osagaiak:

- Kalabazin bi
- Zainzuri-lata handi bat (ura eta guzti)
- Kipula bat
- Patata bat
- Oliba-orio zurrusta bat
- 4 berakatz-atal
- Gatza
- Ura (beharrezkoa bada)

Prestetako erea

Kipulea eta berakatzak zurituko doguz eta erregosiko doguz su eztitan. Kalabazinak eta patatea zuritu eta txikitu, eta gehitu egingo doguz. Ur apur bat eta gatza botako dogu. Eginda dagozanean, zainzuriak (ura be bai) gehituko doguz. Ondo irabiauko dogu.

Izokina papillotean

Osagaiak:

- 4 izokin-zati (250 gramokoak)
- 300 g onddo edo ziza
- Tipulin bi
- Berakatz-atal bi
- Gurina
- Orioa
- Perejila
- Gatza
- Aluminiozko 4 zati

Prestetako erea:

Zartagin baten, su eztitan, orio zurrusta bat eta gurin apur bat ipiniko dogu. Tipulina oso mehe ebagiko dogu eta berakatzak be txikituko doguz. Zartaginean erregosiko doguz. Onddoak edo zizak tiratan ebagiko doguz, eta tipulina eta berakatzak eginda dagozanean, zartagineren botako doguz. Lauzpabost minutuan eukiko dogu egiten. Perejila eta gatza botako dogu. Bestalde, gatza botako deusaguz izokinari. Aluminiozko pape-rak gurinaz igurtziko doguz eta baktxa-



ren gainean izokin-zati bat ipiniko dogu, baita onddoak be bai. Paketeak egin eta labara sartuko doguz, 200 gradutan zor-tzi minutuan.

Oilagorra, eper-saltseagaz

Osagaiak:

- 4 oilagor
- Kipula gorri handi bi
- 4 berakatz-atal
- Tomate zurrusta bat
- Kopa brandy bat
- Ardao zuri zurrusta bat
- Pipermin gorri bat
- Oliba-orioa, gatza eta ura

Prestetako erea:

Kipulak eta berakatzak zuritu eta txikituko doguz, eta erregosten ipiniko doguz. Pipermina gehituko dogu. Oilagorrei gatza bota eta, barazkiak eginda dagozanean, gehitu egingo doguz. Noizbehinka buelta emongo deutsegu. Kolorea hartzen dabenean, brandya bota eta sua emongo deutsegu. Sua amataten danean, tomate botako dogu. Ardao zuria eta ura

be gehituko doguz, harik eta oilagorrek erabat estaltzen doguzan arte. Oilagorrek su eztitan eukiko doguz bigundu arte. Eginda dagozanean kazuelatik aterako doguz eta han dagoan saltsea irabiauko dogu. Lodiegi badago, ur apur bat botako dogu. Oilagorrek saltsan sartuko doguz barriro.



Mahats eta pistatxo-tartea

Osagaiak:

- Oinarria egiteko: 25 g azukre, 100 g urin, 45 g gurin, koilarakada bat ezti, koilarakada bat ur, 50 g pistatxo (txikituak)
- Orea egiteko: 175 g gazta freskoa, jogurt natural bat, arrautza bat, koilarakada bat a zukre eta limoi-birrindurea
- Estaldurea egiteko: mahats zuriak (azala eta haziak kenduta), 25 g pistatxo (txikituak), abrikot-marmeladea

Prestetako erea:

Oinarria egiteko osagaiak, pistatxoak izan ezik, nahastu eta molde baten zabalduko doguz. Pistatxoak ipiniko doguz. Orea egiteko osagaiak be nahastuko doguz eta orea oinarriaren gainean ipiniko dogu. Labara sartuko dogu 175 gradutan, harik eta egiten dan arte. Labatik atera eta marmeladea, mahatsak eta pistatxoak gehituko doguz.



RPM
MAYORISTAS INFORMÁTICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA
Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

RUBEN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA
Lehendakari Leizaola plaza, 3
48170 Zamudio
94 452 14 40

He-apaindegia
M^a Antonia Llodio
TAXI
Tecnemko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

luz zamudio
ARGI APARATUAK
Nekazari kalea, 4 (lonja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia

**hotela
jatetxea
aretxarte**
Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com



**LARRABETZU
TURBERA**
**EUSKAL HERRIA
TURBERA**

ANDRA MARI KALEA
TEL.: 94 455 84 64



IBARRONDO

FISIOTERAPIA
JARRERA-BERREZIKETA
ESKU-TERAPIA

MITXINE, 3
48150 SONDIKA
Tel. 94 453 92 00
Mugikorra 617 674 202
Mugikorra 688 601 871
fisiobarrondo@gmail.com


**LA
GUN
KOR**

aretxalde, 68 - 48196 Iezama
t. 944 556 538 - faxa 944 555 084
lagunkor@hotmail.com

ANOLKULARITZA FISKALA LABORALA KONTABLEA
ZERRITZU BULEGOA

ZORRIKETA
LEZAMAKO EUSKERA ELKARTEA

**Gabon zorientsoak
lezamar eta
txorierritar guztioi**



BATAK BESTEAGAZ LEZAMARROK EUSKARAZ
Tel.: 94 455 60 76

HARRI-BILBO

HARGINTZA OROKORRA

LENIO-ERTZEKO HARRIAK - KANTO HARRIAK - BARLASAIK - MAILAK
ARBUAK - TXIMINIAK - HARRI-HORMITUAK - XAFLA-LANAK

HARRIOIA: DURANGON
E-mail: recupresaharribilbo@euskalnet.net

LANTZIA:
Kurtzea Industrialdea, z/g - 48196 LEZAMA
94 452 10 71

ERAKUSTOKIA:
Itxaropena, 2 - 48100 MUNGIA
94 674 33 40

auto-escuela SONDIKA

Gidabaimena eskuratzeko izapideak
Irakaskuntza teorikoa, praktikoa eta ikus-entzunezkoa

Mateo Bidaurreaga 2
Telefonoa 94 471 00 10
48150 SONDIKA Bizkaia

Plaza iturriondoa, 2 (goia)
Telefonoa: 94 445 90 67
48007 Zurbaranbarri - Bilbo



Gautxori
Erremerterri kalea, 18
48150 SONDIKA

Martinez Zaldueño Doktorea
Mediku estomatologoa
EHUko Odontologia irakaslea
Pankry EEUU Protesist

**Clínica Sondika
Dental**

*1983tik hona zaitzen dugu zure bizirikarria

Protesiak inplanteen gainean
Ortodontziak
Periortodontziak

Goiri, 2
48150 Sondika Bizkaia
Tel.: 94 453 34 40
e-mail: ramonzaldueño@hotmail.com
www.euskalnet.net/sondikadentali

ALZARA
Sondikako euskara elkarte

ORIONAK
RTE BERRI ON!



Zer irakurri?

Joserra (Liluraturia)

Izenburua: Lata baten gorabeherak

Egilea: Begoña Ibarrola

Adina: 5 urtetik 7 urtera bitarteko umeentzat

Nire historia kontatuko dizut. Zu hau-rra zara, eskolara zoaz, zaindu egiten zai-tuzte eta baduzu lo egiteko tokia. Ni, ordea, lata bat naiz, lata hutsa.

Egin nindutenean, ez nekien zertara-ko nintzen, baina egun batean pure gorri bat sartu zuten nire barruan, gero etiketa bat: Tomate lata. A zer ilusioa izena iza-tea!

Gero, supermerkatu eraman nindu-ten eta esku batek apaletik atera ninduen eta bere sukaldean bi egunean egon nin-tzen. Zartagin batera hustu ninduen. Arraro sentitu nintzen ezer barik. Za-borretara bota ninduten, ezertarako ba-lio ez nuelakoan nengoen. Baina han hasi ziren nire abenturak...

Lata baten gorabeherak



Katu batzuek zabor-poltsatik atera ninduten jolasteko eta soinu egiten nuela konturatu nintzen. Klak-kli-klo-klak. Izen berria neukan: Pilota.

Esku bat sentitu eta bat-batean esna-tu nintzen. Limosna eskatzeko erabili nin-duen. Izen berria: Itsulapikoa.

Baina egun batean lurrean ahaztu nin-duen eta beste esku batek lurrez bete nin-duen eta garbantzua bat erein zuen. Izen berria: Lorontzia. Gero, beste esku batzue-tan bukatu nuen. Garbitu ninduen eta paper loretsu bat ipini zidan. Beste izen bat neukan: Potoa. Eta margoak sartu zituen nire barrualdean.

Zahartu nintzenean zaborrontzira bota ninduen, edukiontzi horira; birzikla-tzea inportantea da, badakizu.

Gero, loak hartu ninduen eta esnatu nintzenean latorrizko tren forma neu-kan, baina hori beste istorio bat da...



LOTERIA LEZAMA

- Bonolotoa
Loteria Primitiboa
1-X-2
Saritzarra
Euromiliolak
- Gabonetako eta Erregetako
loterien erreserbak
- Zerbitzua, enpresentzat,
tabermentzat, etab

ARETXALDE, 159 • 48196 LEZAMA • TEL./FAX: 94 455 64 87

HAUR-MODA
Tximeleta

Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

Zainatze Berrak
Logopedia
Podologia
Kirmasalea

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txoriem etorbidea, 9 - Loria | Arriaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com

Vulcanizados DERIO

Herriko plaza, 5 behea • 48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 94 454 00 21

MICHELIN
zerbitzu ofiziala

Peñasko
arraindegia

Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

TOLDOS TXORIERRI
TOLDOS B. GOYOAGA

Lona industrialak
Sareak
Eguzki-ohialak
Alokatzeko lonak

Torrelarragoiti ind, P2
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 12 58
Faxa: 94 452 07 44
Gasolindegia ondoan

a n e
i l e a p a i n d e g i a

solarium arin horizontala
duben zerbitzua
etengabeko ordutegia
hitzordua aurretik eskatuta

tel.: 94 454 35 80

Goiko kalea, 2 - 48160 Derio

TK BAR TXIKI

ESPEZIALITATEA. TORTILLAK

Lehendakari leizaola Plaza, 6
48170 ZAMUDIO - Bizkaia
Telefonoa: 94 452 04 68

Gabonetan be
euskeraz bizi

ZORIONAK

LA GATZU
ZAMUDIOKO
EUSKERA
AIKARTEA
www.lagatzu.org

**zamudion
euskeraz?
hoba ez!**

SUGOI
TABERNA

11:00etatik aurrera zabalik

GARAGARDON MUNDUA

Goiko kalea, 2 - 48160 Derio - 94 454 16 07

OPTICA MODERNA

Erdiko kalea, 4
48160 Derio
Tel.: 94 454 37 99

Jatetxea SAN ISIDRO

EUSKO-OKZELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERKO GOSTOAGINTZA APARTA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

*Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala*

Telefinoa 94 454 07 98
Fax 94 454 14 18

Mungaiate etorbidea, 25
48160 DERIO

t i k t a k

EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria

9€

Bestorrene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

TRIPPY
TABERNA

**Espezialitatea:
GIN TONIC**

Beheko kalea - DERIO

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Txorierrin

F.M. **102.6** Mhz

www.bizkaiairratia.com

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALBARTARITZA
Nerea Pedrosa Cals. 517
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

Carrefour
express

ORDUTEGIA
Asteleheneretik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

PATXI
KOOP

PATXI KOOPERATIBA ELKARITZA
Naberan puztegia - Etxebarri 4. 48170 Zorrotza (Bizkaia) - Tel. 944 521 187 - info@patxi.coop - www.patxi.coop

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Zorrotza etorbidea, 9-4
413. bulegoa
48160 Derio

Telefonia eta faxa
94 454 84 98
a.amondarain@guilakoh.net

Albaitaritza

HENAR ORTUONDO
ALBARTARIA

Mikel Deuna Plaza
Tel.: 94 454 28 21
48160 Derio (Bizkaia)

DERIO

LARRIALDIAK: 24 ordu
Tel.: 94 480 28 84
abonatuak: 1815

INBISA

SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE

Bide garbiketa | Hondakinak biltzea eta garraiatzea | Ur eta estolda-sareak zaintzea eta mantentzea | Hiri tresneria mantentzea eta zaintzea | Lorezaintza zerbitzua | Eraikinen eta lokalak barrutik garbitzea | Hondartzak garbitzea | Garbiguneak kudeatzea eta mantentzea | Lurzorruak deskontaminatzea | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

INBISA Derio Enpresa-zentroa
Astintze, 6A - 1. solairua. 48160 DERIO
www.inbisaserviciosymedioambiente.com
Tel. 94 424 38 34



TXORIERRIKO
MANKOMUNITATEA

Txorierriko Mankomunitateak
eta Udalek zorionak eta urte
barri on opa deutsuez



Derio



Lezama



Loiu



Larrabetzu



Sondika



Zamudio
Udala
Zamudio